

LEHEN HEZKUNTZA gida didaktikoa 1. zikloa


sexu aniztasuna
eta familia berriak
proiektua

“hurbil erreinua”

1.
zikloa

heziketa
EMAKUNDE
saria
2005

BERDINTASUNA
saria



Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin **“Hurbil Erreinuea”** izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukia lantzen dira.

DATA: 2006ko urria


2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:

Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:



CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

ALDARTE

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnua.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org



lesbiana, gay eta transexualen arretarako eskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

Servicio Vasco
"Berdindu"

Etxebizitza eta Gizarte
Gaieko Saila

Gran Vía, 85 - 6.
Bilbao

Tfnua.: 900 840 011
94 403 12 93

berdindu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIEKO SAILA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza
JUSTITZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza
HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aurkezpena

SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK proiektuaren helburua honako hau da: gizonek eta emakumeek afektibitatea, sexualitatea eta familia bizitzeko ditugun modu guztiak haurrei ezagutaraztea eta errespetatzen irakastea, inor gay edo lesbiana izatea arrarotzat jo ez dezaten, edo bi aita edo ama izatea ere bitxia suerta ez dakien.

Honako material didaktiko hauekin osatu da proiektua:

- “Hurbileko Erresuma” txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa.
- Ikasleentzako lan-koadernoak: lehen hezkuntzako hasierako hiru zikloetarako.
- Irakasleentzako gida didaktikoak: lehen hezkuntzako ziklo bakoitzerako bana.
- Karta-jokoa: “7 familia mota”.
- Ipuina: “Iris eta Lila”.
- Familiei orientazioa emateko haur-sexualitateari buruzko gida.

Zertarako balio du gida didaktiko honek?

Lehen Hezkuntzako aurreneko zikloko ikasgeletan proiektua martxan jartzeko eta garatzeko lagungarri izan nahi du gida didaktiko honek. Gida honetan honako hauek aurki ditzakezu:

1. Proiektuaren helburu nagusiak.
2. Jardueren edukia eta gorputz teorikoa.
3. Ikasleek garatuko dituzten gaitasunak eta trebetasunak.
4. Jarduera bakoitzaren azalpena, gauzatzeko iradokizunak.

Lehen Hezkuntzako aurreneko ziklorako Lan Koadernoan hainbat materialen eta jardueraren bitartez egiten da sexu-orientazioen eta familien aniztasun horrekiko lehen kontaktua. Haurrak ohartuko dira zoriontsu izateko ez duela axola gay, lesbiana edo heterosexuala izatea, edo beren gurasoak sexu berekoak izanagatik ere ikaskideen gurasoek adina maitatuko dituztela.

Proposatzen diren jardueren bitartez, jarrerak eta balioak ez ezik, honako arlo hauek ere lantzen dira: euskara, gaztelania, matematika, ingurunearen ezagutza eta plastika. Ariketetako egoerak eta pertsonaiak ikusita, ikasleei hainbat zalantza sortuko zaizkie: Azkarratxinek eta Koplasek zergatik bahitu dute Iris?; Lilak zergatik egon nahi du Irisekin?; nork ditu bi ama?; Iris eta Lila zoriontsu al dira? etab.

Helburuak eta edukiak

- 1.** Gure afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko garaian, gizonek eta emakumeek hainbat aukera/orientazio ditugula ulertarazi behar diegu ikasleei.
- 2.** Orientazio sexuala zer den aztertzea eta azaltzea, alegia, pertsonok beste pertsonetik sentitzen dugun erakarpen afektibo eta sexuala. Beraz, gure sexu bereko pertsonetik erakarpena sentitzen dugunean (gizonak gizonarekiko edo emakumeak emakumearekiko), orientazio sexual horri homosexualitatea deritzo. Erakarpen hori sexu desberdineko pertsonen artekoa bada (gizonak emakumearekiko edo emakumeak gizonarekiko) heterosexualitatea esaten zaio. Adibidez, emakume batek beste emakume bat gustuko duenean lesbiana esaten zaio, eta gizon batek beste gizon bat duenean gogoko, gizon hori gay da.
- 3.** Homosexualitatea eta heterosexualitatea gure sexualitatean gertatzen diren fenomenoak direla ikusarazi behar diegu, nahiz eta ohiko moduan, guztiok heterosexual izateko joera dugula uste izan aldez aurretik. Aldez aurretik pentsatzen dugun ideia hori honako honetatik dator: heterosexualitate-presuntzio unibertsaletik. Esan daiteke pertsona batentzat heterosexuala izatea beste batentzat gay edo lesbiana izatea bezain naturala dela.
- 4.** Homosexual direla aitortzen duten edo guk horrela uste dugun jendearekiko jarrera eta portaera negatiboak edo bortitzak izatea bidezkoa ez dela ulertaraztea. Esaterako: mutiko bat panpinekin jolasten ari bada, edo neska bat kamioiekin, ez dugu pentsatu behar gay, lesbiana edo heterosexual direnik, eta dena delakoa direla ere, normaltasun osoz onartu behar dugu. Eta horregatik ere ez diegu deituko haur horiei bollera, lesbiana, marika edo maritxua eta antzekoak. Ezin diogu inori gutxietsia sentiarazi, bere nahiak, erakarpenak eta afektibitateak gordetzera behartuz, zeren jokabide hori ez baita ez jokabide etikoa ez eta jokabide onargarria ere.
- 5.** Maskulinitasunaren eta feminitatearen estereotipoak indargabetuko dituzten jarrera kritikoak bultzatzea. Ildo beretik, haur bakoitzak den bezala eta izan nahi duen modukoa izateko eskubidea duela ulertu behar dugu, genero-estereotipoek emakumei edo gizoni ezartzen dizkieten mugak, jarraibideak, aukerak edo etiketak gaituzte. Muga edo etiketa horiek guztiak pertsona-status ezberdina ematen diote sexu bakoitzari, eta horretaz gain, nahitaez heterosexual izatera bultzatzen gaituzte, homosexualitatea errefusaraziz. Orientazio sexuala bizitzeko modu guztiekiko balio positiboak sustatzen ditugularik, gure ikasleak berdintasunezko eta errespetuzko harremanak izateko gai izan daitezen ari gara lanean.

13 lan fitxen aurkezpena

Bi astean lan egiteko diseinatua dago Lan Koadernoan, pedagogia aktiboa, alai eta parte-hartzaileari jarraiki, ariketa asko denbora-pasen edo jolasen antzekoak baitira.

Lan-koaderno honetako 13 fitxak betetzeko, “Hurbileko Erresuma” txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa ikusi behar da aldezturik, edo “Iris eta Lila” ipuina irakurri; izan ere, DVDko eta ipuineko protagonistak baitira fitxetan proposaturiko ariketetako pertsonaiak.

Saioaren hasieran, fitxak aurkezten direnean, ikasleekin elkarriketa sor daiteke, pertsonaiak zein diren, non bizi diren, zer egin duten... gogorarazteko.

Ariketa-fitxen fotokopiak egin daitezke ikasgelan errazago lantze aldera, eta nahi izanez gero, ordena ere alda daiteke. Txuri-beltzean eginda daude, ikasleek margo ditzaten.

1. fitxa Desberdintasunak

Koplas eta Azkarratxin agertzen dira, Hurbileko Erresumako tokiren batean. Bi marrazkiak antzekoak direnez, haien arteko desberdintasunak bilatu behar dira. Elkarriketaren bidez egin daiteke, erlatibozko perpausak baliatuta; esaterako, goian dagoenari belarritakoak falta zaizkio, edo behekoak duen ezpata txikiagoa da goikoarena baino.

Bestela, ikasleei honelako galderak egin diezazkiekegu: Zein dira Azkarratxin eta Koplas? Zergatik bahitu dute Lila?, etab.

2. fitxa Labirintoa

Irisek Lila askatzeko, hasierako eragiketak ebatzi behar dira. Emaizten arabera, bidetari jarraituko diogu Lila dagoen tokira iritsi arte. Labirintoaren barruko eragiketak eta zenbakiak alda daitezke, une horretan lantzen ari garena txertatzeko —batuketak, kenketak...—.

Ikasleei honelako galderak egin diezazkiekegu: Irisek zergatik askatu behar du Lila?, Lilak zergatik ez du nahi printzearekin ezkondu?, etab.

3. fitxa Printzearen puzzlea

Norekin ezkondu behar duen pentsatu eta pentsatu aritu da printzea, eta argazkiaren zenbait zati galdu ditu. Argazkia osatze aldera, 3.1. fitxan proposaturiko eragiketak egin behar dira, eta emaitzaren arabera, zatiak kokatu.

4. fitxa Irisen puzzlea

Arreta eta trebetasuna eskatzen ditu ariketa honek. Irisen irudia osatzeko zatiak moztu eta itsatsi behar dira.

Ikasleei honelako galderak egin diezazkiekegu: Irisek zergatik egon nahi du Lilarekin?

5. fitxa Printzearen gaztelua. Simetria

Erreginaren gazteluak erdia falta du. Bukatu nahi badugu, hurrei diktaketa berezi bat egin behar diegu: bi lauki eskuinera, lau behera...

6. fitxa Hitz gurutzatuak

Hitz gurutzatu honetan ipuineko pertsonaiak eta tokiak agertzen dira. Taldean irakur daiteke, edo banaka osatu.

7. fitxa Asmakizunak

Irakurri ostean, banaka edo taldean, erantzun bakoitzarekin marrazki bat egin behar da.

8. fitxa Azkarratxinen zakua

Zakuan hainbat letra daude, eta elkarren artean konbina daitezke, hurrek hitzak asma ditzaten. Aldez aurretik, plastikozko edo kartoi mehezko letrekin egin dezakegu gauza bera, talde txikitan edo mahaietan lantzeko, ahalik eta hitz gehien osatzeko eskatuta. Hori egin ondoren, hitz horiekin esaldiak idazteko eska diezaikegu.

9. fitxa Zer falta zaie?

Aztera eta aurrera, gora eta behera ibili direnez, Irisek eta Lilak gorputzeko zenbait zati galdu dituzte. Ariketa honen bitartez zentzumenak landuko ditugu, falta zaien organoa dagokion zentzumenarekin lotuta.

Euskaraz, “zer-nori” landu dezakegu, galderari erantzuteko garaian.

10. fitxa Letra-zopa

Fitxan agertzen diren bost pertsonaien izenak topatu behar dira letra-zopan: Iris, Lila, Koplak, Azkarratxin eta printzea.

11. fitxa Erreginaren soinekoa

Erreginaren soinekoa letraz eta zenbakiz josita dago, eta arreta handiz begiratuta, proposatutako galderari erantzun behar diegu.

Arreta lantzeko ariketa da, zailtasun handirik gabea.

12. fitxa Irisen ametako bat

Irisen ametako baten soinekoa oso arraroa da, silabaz eta zenbakiz osatua baitago. Zenbaki berdina duten silabak elkartu eta ordenatuz gero, hainbat hitz osatuko ditugu, eta hitz horiek baliatuta esaldiak idatzi beharko dira.

13. fitxa Paisaia

Hurrek ipuineko pertsonaiak marraztu behar dituzte orri batean. Margotu eta moztu ostean, paisaian itsatsiko dituzte; aldeaz aurretik, paisaia ere margotu behar da.

(Oharra) Informazio gehiago edo gaiari sakondu nahi izanez gero, hirugarren zikloko gida didaktikoa irakurtzea gomendatzen dizuegu.

ALDARTEn, gay eta lesbianentzako atentzio zentrua; formazio, informazio, laguntza eta orientaziorako baliabideak ditugu gay, lesbiana zein transexualeentzako eta euren familia, lagun eta ingurukoentzako.

ALDARTEk irakasle-taldeentzako zein orientabide departamentuentzako formazio tailerrak eskaintzen ditu.

Ekintzaren bat antolatu nahi baldin baduzue, irakasle edo ikasleentzako, edo kontsultaren bat egin, **ALDARTE**rekin harremanetan jarri telefonoz, e-mail bidez edo zentrura hurbilduz.

ALDARTEren web orria **www.aldarte.org** gelako lanean tresna erabilgarria izan daiteke.



CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

Hemen aurkituko gaituzu:

Berastegi kalea, 5-5. 8 eta 9 departamentuak • 48001 Bilbao

Telefona **944237296** • e-mail: **aldarte@aldarte.org**

Ordutegia:

Goizean - astelehenetik-ostiralera: 10.00-13.00

Arratsaldean - astelehenetik-ostiralera: 17.30-21.30

LEHEN HEZKUNTZA


gida didaktikoa 2.zikloa

sexu aniztasuna
eta familia berriak
proiektua


“hurbil ereinua”

2.

zikloa



heziketa
EMAKUNDE
saria
2005
BERDINTASUNA
saria



Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin **“Hurbil Erreina”** izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukiak lantzen dira.

DATA: 2006ko urria

2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:
Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:



CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

ALDARTE

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnoa.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org



berdindu!

lesbiana, gay eta transexualen arretarako eskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

**Servicio Vasco
“Berdindu”**

Etxebizitza eta Gizarte
Gaieko Salla

Gran Vía, 85 - 6.
Bilbao

Tfnoa.: 900 840 011
94 403 12 93

berdindu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIEKAKO SAILA
Gizarte Ordezkatze Zuzendaritza

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

HEZKUNTZA UMERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aurkezpena

SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK proiektuaren helburua honako hau da: gizonak eta emakumeak afektibitatea, sexualitatea eta familia bizitzeko ditugun modu guztiak haurrei ezagutaraztea eta errespetatzen irakastea, inor gay edo lesbiana izatea arrarotzat jo ez dezaten, edo bi aita edo ama izatea ere bitxia suerta ez dakien.

Honako material didaktiko hauekin osatu da proiektua:

- “Hurbileko Erresuma” txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa.
- Ikasleentzako lan-koadernoak: lehen hezkuntzako hasierako hiru ziklo-etarako.
- Irakasleentzako gida didaktikoak: lehen hezkuntzako ziklo bakoitzerako bana.
- Karta-jokoa: “7 familia mota”
- Ipuina: “Iris eta Lila”
- Familiei orientazioa emateko haur-sexualitateari buruzko gida.

Zertarako balio du gida didaktiko honek?

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasgeletan proiektua martxan jartzeko eta garatzeko lagungarri izan nahi du gida didaktiko honek. Gida honetan honako hauek aurki ditzakezu:

1. Proiektuaren helburu nagusiak.
2. Jardueren edukia eta gorputz teorikoa.
3. Ikasleek garatuko dituzten gaitasunak eta trebetasunak.
4. Jarduera bakoitzaren azalpena, gauzatzeko iradokizunak.

Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako Lan Koadernoan, sexu-orientazioen eta familien aniztasunean sakontzea proposatzen da, hainbat materialen eta jardueraren bitartez. Lesbianismoa modu esplizituagoan agertzen da, “Iris eta Lila” ipuineko pertsonaien bitartez. Halaber, sexu bereko gurasoen errealitatearekin harreman zuzenagoa izatea lortu nahi dugu, gure gizartean badirelako bi aita, bi ama edo guraso bakarra duten familiak, eta horien berri ere izan behar dute haurrek.

Proposatzen diren jardueren bitartez, jarrerak eta balioak ez ezik, honako arlo hauek ere lantzen dira: euskara, gaztelania, matematika, ingurunearen ezagutza eta plastika. Ariketetako egoerak eta pertsonaiak ikusita, ikasleei hainbat zalantza sortuko zaizkie: Azkarratxinek eta Koplasek zergatik bahitu dute Iris?; Lilak zergatik egon nahi du Irisekin?; nork ditu bi ama?; Iris eta Lila zoriontsu al dira? etab.

Helburuak eta edukiak

1. Gure afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko garaian, gizonek eta emakumeek hainbat aukera/orientazio ditugula ulertarazi behar diegu ikasleei. Gure sexu-orientazio aniztasun hori altxortzat jo behar dugu, modu positiboan balioetsita.

2. Honako hau aztertzea eta azaltzea: homosexualitatea ez dela gaixotasuna, eta, beraz, ezin dela sendatu. Homosexualitatea eta heterosexualitatea gure sexualitatean gertatzen diren fenomenoak dira. Bederatzi urteko haurrek gay edo lesbiana direla senti dezakete. Homosexualitatea ez da nerabezaroan agertzen, bat-batean. Homosexual askok zentzua dutenetik adierazten dute beren joera. Esan daiteke pertsona batentzat heterosexuala izatea beste batentzat gay edo lesbiana izatea bezain naturala dela.

3. Honen gainean kontzientziatzea: gure orientazio sexuala edozein izanik ere, pertsona guztiok dugun aukerarik onena gure desioak, erakarpenak eta afektibitateak ez ezkutatzea dela, gure sexualitatea modu positiboan biziz. Horretarako, ezinbestekoa da konfiantzako eta laguntzako giroa sortzea guztion artean.

4. FAMILIA eta ANIZTASUNA kontzeptuak lantzea ikasleekin, lotura handia baitago bi horien artean. Gure gizartea oso dinamikoa dela eta etengabe aldatzen ari dela kontuan izan behar dugu, eta gizarte-aldaketek familietan ere eragin behar dutela. Familiak ez du esanahi bakarra; jendea askotarikoa baldin bada, jendea biltzen duten familiak ere askotarikoak izango dira, ezinbestean. Esate baterako, ikasgeletan edo aisialdiko taldetan, zenbait haurrek aita eta ama izango dute, edo aita edo ama bat, edo bi ama, edo agian beste hainbat adoptatuak izan dira.

5. Honako hau lortu behar dugu: lesbianen edo gayen familietan bizi diren haurrek naturaltasun osoz hitz egitea beren bizitzari buruz. Familia homosexualean bizi diren haur asko oso gustura bizi dira, baina gerta daiteke eskolan horren inguruan ez hitz egitea, ez lotsa ematen dielako, baizik eta horretaz hitz egiteko aukerarik ez dutela sumatzen dutelako. Sexu bereko gurasoak dituzten haurrek beren bizipenak normaltzat har ditzaten, oso lagungarria izango litzateke eskolan beren sentimenduak beste hurrekin partekatzeko aukera izatea.

6. Maskulinitasunaren eta feminitatearen estereotipoak indargabetuko dituzten jarrera kritikoak bultzatzea. Ildo beretik, haur bakoitzak den bezala eta izan nahi duen modukoa izateko eskubidea duela ulertu behar dugu, genero-estereotipoek emakumeei edo gizonei ezartzen dizkieten mugak, jarraibideak, aukerak edo etiketak gaindituta. Muga edo etiketa horiek guztiek pertsona-status ezberdina ematen diote sexu bakoitzari, eta horretaz gain, nahitaez heterosexua izatera bultzatzen gaituzte, homosexualitatea errefusaraziz. Orientazio sexuala bizitzeko modu guztiekiko balio positiboak sustatzen ditugularik, gure ikasleak berdintasuneko eta errespetuzko harremanak izateko gai izan daitezzen ari gara lanean.

12 lan fitxen aurkezpena

Lan-koaderno honetako 12 fitxak betetzeko, “Hurbileko Erresuma” txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa ikusi behar da alde zurretik, edo “Iris eta Lila” ipuina irakurri; izan ere, DVDko eta ipuineko protagonistak baitira fitxetan proposaturiko ariketetako pertsonaiak.

Bi astean lan egiteko diseinatua dago, pedagogia aktiboa, alaia eta parte-hartzaileari jarraiki, ariketa asko denbora-pasen edo jolasen antzekoak baitira.

Ariketa-fitxen fotokopiak egin daitezke ikasgelan errazago lantze aldera, eta nahi izanez gero, ordena ere alda daiteke. Txuri-beltzean eginda daude, ikasleek margo ditzaten.

1. fitxa Ipuina

Hasierako ipuina irakurri ostean —banaka nahiz taldean—, ikasleei gehien gustatzen zaien amaiera aukeratzeko eztabaida sortuko dugu, baita aukera horren alde egitera bultzatu gaituzten arrazoen inguruan ere.

Ariketa honekin lexikoa aberastea lortu nahi da, hiztegia baliatuta. 1.1. fitxan hainbat hausnarketa eta galdera proposatzen dira, ikasleei egiteko.

2. fitxa Esaldiak osatu

Ariketa honekin lexikoa aberastea lortu nahi da, hiztegia baliatuta.

3. fitxa Desberdintasunak

Bi marrazkiren artean dauden desberdintasunak topatu behar dira. Hasieran ahoz egitea proposatzen dugu, erlatibozko esaldiak lantzeko; esate baterako: eskuineko aldean dagoen soinekoari halakoa..... falta zaio.

4. fitxa Gazteluak

Arreta eta logika matematikoa lantzeko ariketa. Printzearen gazteluan 4 zenbaki daude ezkutatuta, eta lauki bakoitzeko argibideei jarraiki, aurkitu egin beharko ditugu.

5. fitxa Mezu ezkutatua

Fitxan agertzen den esaldia osatu egin behar da, biderketa bakoitzaren gainean dagokion letra jarrita. Horretarako, goiko taulan ikusi beharko dute zenbaki bakoitzari zein letra dagokion.

Trukatze-legea ere landu daiteke, eragiketak ordena aldatuarekin jarri baititugu, nahita.

6. fitxa Hitz ezkutatuak

Helburua berdina da: proposaturiko eragiketak egindakoan hitzak osatzea, eta aurreko ariketetan bezalaxe, alda daitezke.

7. fitxa Simetriak

Arazoen poderioz, printzeak gorputz erdia galdu du. Gorputza osatzea da kontua, arreta landuta.

8. fitxa Buruketa 1

Bi problema proposatu ditugu; protagonistak ipuineko pertsonaiak dira eta ipuinean ageri diren ekintzak egiten dituzte.

9. fitxa Buruketa 2

Bi problema proposatu ditugu; protagonistak ipuineko pertsonaiak dira eta ipuinean ageri diren ekintzak egiten dituzte.

10. fitxa Gure klasea

Gaur egungo gizartean izaten diren familia mota guztiak ezagutzearen, inkesta bat egingo dugu. Ikasgelan bertan lor ditzakegun datuak baliatuta, 10.1. fitxan barra-grafiko bat egingo dugu.

Ariketaren azkeneko zatian, ikasgelan eta gizartean topa ditzakegun familia mota guztien gaineko hausnarketa egingo dugu.

11. fitxa Lilaren buru-hausgarria

Lilaren puzzlea osatu behar da. Fitxako laukizuzenak moztu, kolatu eta beste orri edo kartoi mehe batean itsatsi behar dituzte, marrazki osoa egin arte. Margotu ere egin daiteke.

12. fitxa Irisen buru-hausgarria

12.1. fitxako puzzlea osatu behar da. Horretarako, 12. fitxako laukitxoak moztu behar dira, eta lauki bakoitzeko zenbakiarekin bat datorren biderketa bilatu behar da, biderketaren emaitzari erreparatuta.

Oharra. Homosexualitateari, sexu bereko gurasoen familiei edo Europako legeen, ezkontzaren, adopzioaren eta abarren inguruko legeen batik bat-bilakaerari buruzko informazioa edo datu gehiago lortu nahi izanez gero, irakur ezazue hirugarren zikloko gida didaktikoa.

ALDARTEn, gay eta lesbianentzako atentzio zentrua; formazio, informazio, laguntza eta orientaziorako baliabideak ditugu gay, lesbiana zein transexualeentzako eta euren familia, lagun eta ingurukoentzako.

ALDARTEK irakasle-taldeentzako zein orientabide departamentuentzako formazio tailerrak eskaintzen ditu.

Ekintzaren bat antolatu nahi baldin baduzue, irakasle edo ikasleentzako, edo kontsultaren bat egin, **ALDARTE**rekin harremanetan jarri telefonoz, e-mail bidez edo zentrura hurbilduz.

ALDARTEren web orria www.aldarte.org gelako lanean tresna erabilgarria izan daiteke.



CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

Hemen aurkituko gaituzu:

Berastegi kalea, 5-5. 8 eta 9 departamentuak • 48001 Bilbao
Telefonoa **944237296** • e-mail: aldarte@aldarte.org

Ordutegia:

Goizean - astelehenetik-ostiralera: 10.00-13.00
Arratsaldean - astelehenetik-ostiralera: 17.30-21.30

LEHEN HEZKUNTZA

gida didaktikoa 3.zikloa


sexu aniztasuna
eta familia berriak
proiektua

“hurbil erreinua”

3.

zikloa

heziketa
EMAKUNDE
saria
2005
BERDINTASUNA
saria



Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin **“Hurbil Erreina”** izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukiak lantzen dira.

DATA: 2006ko urria


2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:

Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:



CENTRO DE ATENCIÓN A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

ALDARTE

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnua.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org



lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

**Servicio Vasco
“Berdindu”**

Etxebizitza eta Gizarte
Galeko Salla

Gran Vía, 85 - 6,
Bilbao

Tfnua.: 900 840 011
94 403 12 93

berdindu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SALLA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

JUSTITZA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SALLA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SALLA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Aurkezpena

SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK izeneko gizartearen eta hezkuntzaren arloko proiektua 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat egin dago, eta aniztasun-hezkuntzaren alde egiten du, afektibotasuna, sexualitatea eta familia bizitzeko modu guztiak errespetatzen dituen hezkuntza irekiaren alde egin ere.

Ikasleek lesbianismoarekin, homosexualitatearekin eta sexu bereko gurasoen errealitatearekin elkarbizitzen ikasteko tresna da.

Honako material didaktiko hauekin osatu da proiektua:

- “Hurbileko Erresuma” txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa.
- Ikasleentzako lan-koadernoak: lehen hezkuntzako hasierako hiru zikloetarako.
- Irakasleentzako gida didaktikoak, Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako bana.
- Karta-jokoa: “7 familia mota”
- Ipuina: “Iris eta Lila”
- Familiei orientazioa emateko gida.

Zertarako balio du gida didaktiko honek?

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasgeletan proiektua martxan jartzeko eta garatzeko lagungarri izan nahi du gida didaktiko honek, irakasleei begira. Gida honetan honako hauek aurki ditzakezu:

1. Proiektuaren helburuak jarduera bakoitzerako.
2. Jarduera bakoitzaren edukia eta gorputz teorikoa.
3. Ikasleek garatuko dituzten gaitasunak eta trebetasunak.
4. Jarduera bakoitzaren azalpena, gauzatzeko iradokizunak eta erantzunak.

Lehen hezkuntzako 3. zikloko ikasleentzako lan koadernoan nolakoa da?

Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako Lan Koadernoan, aurreko bi zikloetako koadernoetan bezalaxe, sexu-orientazioen eta familien aniztasuna ezagutzea proposatzen da, hainbat materialen eta jardueraren bitartez. Halaber, Mendebaldeko historian ekarpen handiak egin dituzten hainbat pertsonaia ezagunen —emakumeak eta gizonak— berri izango dute ikasleek; hain zuzen ere, sexu bereko jendearekin harreman afektibo/sexualak izan dituzten pertsonaien berri.

Azkenik, Europan homosexualitateak eta lesbianismoak bizi duten lege-egoeraren berri emango zaie ziklo honetako ikasleei, eta homosexualen eta lesbianen sexu-askatasunaren alde lan egin izan duten kolektiboak eta elkarteak ere izan badirela jakingo dute.

Proposatzen diren jardueren bitartez, jarrerak eta balioak ez ezik, ziklo honetako ikasketa-arloekin loturiko trebetasunak eta gaitasunak ere landuko dira. Hortaz, nahi izanez gero, diziplinarteko moduan lan egin daiteke koaderno honekin. Hona hemen landuko diren trebetasunak eta gaitasunak:

- Irakurketa eta irakurritakoaren ulermena.
- Gaitasun plastikoak.
- Komunikazioa eta idazmena.
- Komunikazioa eta mintzamena.
- Idatzitako iturriak kontsultatzea.
- Mapekin eta grafikoekin lan egitea.
- Testuak interpretatzea.
- Hiztegiak kontsultatzea.
- Kalkulu matematikoa.
- Ordenagailuarekin eta Internetekin lan egitea.

Lan-koadernoan proposatzen diren jarduerak egiteko, aldez aurretik Hurbileko Erresuma txotxongilo-emanaldia biltzen duen DVDa ikustea edo Iris eta Lila ipuina irakurtzea ez da beharrezkoa, baina bai gomendagarria.

Honako jarduera hauek proposatu dira:

- 1.-** Hurbileko Erresuma obraren gidoia eta horri buruzko galderak.
- 2.-** Ba al duzu historiaren berri?
- 3.-** Berdinak gara eta eskubide berberak ditugu: gay eta lesbianen lege-egoera Europan.
 - 3.1.-** Ezagut dezagun Europako mapa.
 - 3.2.-** Gai horren inguruko zenbait berri.
- 4.-** Nolakoak dira gure familiak?
 - 4.1.-** Egin dezagun grafiko bat.
 - 4.2.-** Argazkiekin lan eginez.

Jardueren, helburuen, edukien eta gaitasunen aurkezpena

1.- Hurbileko Erresuma obraren gidoia eta horri buruzko galderak

Helburuak:

- Sexu-orientazio guztiak agerian uztea. Gure afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko garaietan, gizonak eta emakumeak hainbat aukera/orientazio ditugula ulertarazi behar diegu ikasleei.
- Honako hau aztertzea eta azaltzea: homosexualitatea ez dela gaixotasuna, eta, beraz, ezin dela sendatu.
- Joera homosexuala dutenekiko enpatia.
- Homosexual direla aitortzen duten edo guk horrela uste dugun jendearekiko jokabide eta jarrera intoleranteak edo bortitzak izatea onartezina dela ulertaraztea.
- Emakumeen ahalduntzeari bultzada ematea, euren bizitzaren protagonista aktibo izateko gaitasuna izan dezaten.
- Emakumeen eta gizonen artean berdintasun-balioak sustatzea.
- Informazioa eta aholkularitza jasotzeko banakako premiak betetzea.

Gaitasunak:

- Irakurketa eta ulermena.
- Idazmena.
- Mintzamina eta ahozko komunikazioa.
- Gaitasun plastikoak.

Jarduera eta edukia:

- Hurbileko Erresuma obra antzetztea.
- Obrako zenbait pertsonaiaren jarrerari buruzko galdera sorta.

Nahierara antzez daiteke obra; hau da, single-single guztien artean ozenki irakur daiteke, doinuari eta deklamazioari erreparatuta, edo bestela, gehiago konplika daiteke, mozarrotuta, agertokiaren gainean, esan beharrekoa buruz ikasita, argiekin...

Guztira 17 pertsonaia agertzen dira, eta kontalariak ekintzen sarrerak egiten ditu.

Istori honetako protagonistak zoriontsu direla konturatuko dira haurrak, eta printzearen eta kondearen intolerantzia ikusita, zoriontsu izaten jarraitzeko errespetua eta askatasuna eskatzen dutela. Ikusiko dute bi neska —ero samarra dagoen doktoarearen laguntzarekin— gai direla printze handi bat garaitzeko, printzeak bere gutziak besterik ez baititu buruan. Irisek bi ama dituela ere jakingo dute, eta biek asko maite dutela Iris, baita Irisek biak ere.

Galdera sortari erantzunda, ikasleek honako hauei buruz dituzten iritziak agertuko dira: Irisen eta Lilaren arteko harremanari buruz, printzearen eta kondearen jarrerari buruz, eta Irisek bi ama izateari buruz. Tolerantziaren, negoziazioaren eta onarpenaren ideiak landu daitezke ikasgelan.

Heterosexualitate-presuntzio unibertsalaren ideia oso zabaldua dagoenez, horren inguruan aritzea ere interesgarria izango da. Heterosexualitate-presuntzio unibertsala honako hau da: jende guztia heterosexuala dela pentsatzea alde zurretik, eta pentsamolde horren arabera jokatzeko. Elkarriketa sor dezakegu, horrelako galderak eginda: galdetzen al diozue mutil bati beste mutil bat gustuko ote duen? Galdetzea bururatzen al zaizue? Eta neska bati, mutilak soilik atsegin dituen galdetzen al diozue? Beste neska bat gogoko duen galdetzea bururatzen al zaizue?

1973. urteko abenduan, Amerikako Psikiatria Elkarteak (APA) gaitzetsi egin zuen homosexualen kontrako diskriminazio publiko edo pribatu oro, enpleguaren, etxebizitzaren eta abarren arloan, eta honako hau adierazi zuen: “ezin zaie eskatu gainerakoei baino froga gehiago, adimen-gaitasunari, egonkortasunari edo fidagarritasunari dagokionez“. Horrela, homosexualitatea kategoriatik patologikotik aldatu zen. Eta ez hori bakarrik; estatu- eta federazio-mailako legedi bat onartzeko eskatzen zuen APAk, homosexualen heterosexualei legezko babes eta berme berdinak ziurtatzeko.

1989. urtean, Osasunaren Munduko Erakundeak gaitzetsi zituen zituen oraindik gay eta lesbianak; ILGA Nazioarteko Lesbiana eta Gay Elkarteak horren kontra agertu zen, eta Amnesty International erakundeak laguntza eskatu zion. 1993. urtera bitarte eutsi zion OMEk homosexualitatearen sailkapen horri, gaitzetasun mentaltzat hartuta.

2.- Ba al duzu historiaren berri?

Helburuak:

- Orientazio sexualen aniztasuna errespetatzea.
- Mendebaldeko historian, sexu bereko jendearekin harreman afektibo/sexualak izan dituzten gizonak eta emakumeak badirela ezagutzea.
- Norberaren sexu-orientazioak gaitasunekin inolako loturarik ez duela ikusaraztea.
- Orientazio sexualen aniztasuna giza aberastasunaren adierazletzat ulertzea.
- Ezeri uko egin gabe, eta errudun sentitu gabe, norberaren sexualitatea bizitzeko eskubidearen gainean kontzientziaztea.

Gaitasunak:

- Ordenagailuarekin eta Internetekin lan egitea.
- Idatzitako iturriak kontsultatzea.
- Irakurritakoa ulertzea
- Idazmena.

Jarduera eta edukia:

Jarduera honen bitartez, konturatuko dira taulan agertzen diren pertsonaia garrantzitsu guztiek ezaugarri komun bat dutela: sexu bereko jendearekin harreman afektibo/sexualak izatea. Beren garaian, pertsonaia horiek miretsiak eta garrantzitsuak izan zirela ikusiko dute, eta haien aurkikuntzak eta ekarpenak guk ere miresten ditugula, gaur egun oraindik ere; hortaz, norberaren sexu-orientazioak eta gaitasunek loturarik ez dutela jabetuko dira.

Internet bidez hainbat pertsonaiaren bizitza kontsultatzeko eska diezaiekegu, hala nola Marguerite Yourcenar, Rudolf Nureyev, Martina Navratilova..., horiek ere sexu bereko jendearekin izan baitituzte harreman afektibo/sexualak.

Hari berari jarraiki, honako hau nabarmendu behar dugu: iraganeko gizon eta emakume garrantzitsu guztiak heterosexualak izan zirela pentsatzeko joera dela nagusi. Izan ere, zenbait biografiatan ezkutatu egiten da jendearen nortasunaren alderdi garrantzitsu bat: sexu-orientazioa.

Hona hemen ariketa honen erantzunak:

Safo, K.a. 630-560, Grezia, poeta
 Alejandro Magno, K.a. 356-323, Mazedonia, enperadorea
 Leonardo Da Vinci, 1452-1519, Italia, pintorea, ingeniaria, arkitektoa
 Michelangelo Buonarroti, 1475-1564, Italia, pintorea, eskultorea
 Sor Juana Inés de La Cruz, 1651-1695, Mexiko, poeta eta santua.
 Patricia Highsmith, 1921-1995, Estatu Batuak, idazlea.
 Marlene Dietrich, 1901-1992, Alemania, aktorea.
 Isaac Newton, 1643-1727, Britainia Handia, zientzialaria.
 Isadora Duncan, 1878-1927, Estatu Batuak, dantzaria.
 Rock Hudson, 1925-1985, Estatu Batuak, aktorea.

3.- Berdinak gara eta eskubide berberak ditugu: gay eta lesbianen lege-egoera Europan

3.1.- Ezagut dezagun Europako mapa

Helburuak:

- Orain dela gutxi arte, gay eta lesbianak baztertuta bizi izan direla eta ikusezin egiten zituztela jakitea.
- Gaur egun, Europan homosexualitateak nahiz lesbianismoak onarpen-maila handiagoa dutela aztertzea eta azaltzea.
- Joera homosexuala dutenekiko enpatia.
- Jende guztiak eskubide berdinak izan behar dituela ulertzea, sexu-orientazioa dena delakoa izanik ere.
- Gay eta lesbianek Europan bizi duten lege-egoera eta eskubideak ezagutzea.

Gaitasunak:

- Mapekin lan egitea.
- Ulermena.
- Mintzamina.
- Idatzitako iturriak kontsultatzea eta ikertzea.

Jarduera eta edukia:

Jarduera honen bitartez, homosexualen kolektiboak Europan bizi dituen lege-egoera guztien berri izango dute: Espainian, Holandan eta Belgikan norbanakoaren eskubideei eta bikote-eskubideei dagokienez berdintasuna eta erabateko parekatzea dute; aldiz, Errumanian, Bulgarian edo Errusian, diskriminazio-egoera tamalgarrrian bizi dira. Aldi berean, Europako maparekin lan egingo dute, eta zenbait hiriburu ikasiko dituzte.



Europako lege-egoeraren berri izatea nahikoa zaila izan daiteke, batik bat bi arrazoiengatik:

- Herrialde guztiek legedi ezberdina dute horren inguruan, baina herrialde bakoitzak idazten dituen legeak ez datoz beti bat beste herrialdeetan gay eta lesbianeiei onartzen zaizkien eskubideekin (pentsioak, adopzioa, oinordetza...). Esaterako, Portugaleko Bikote Legean gay eta lesbianeiei onartzen zaizkien eskubideak ez dira Frantziakoaren berdinak.
- Gai horren inguruan, Europako herrialdeetako legedia etengabe aldatzen ari da; Izatezko Bikoteen Legeak edo Ezkontza Legeak onartzen ari dira gero eta herrialde gehiagotan, edo bestela, lehendik baziren legeak aldatzen eta zabaltzen.

Horregatik eskatuko diegu ikasleei ikertzeko, Interneteko bilatzailearen bat baliatuta, hainbeste aldatzen den lege-egoera horren gainean. Kontua ez da herrialde bakoitzeko egoera zehatz-mehatz ezagutzea, baizik eta egoera ezberdinen arteko alde berri izatea eta horiek komentatzea:

Gaur egun, hiru bloke handitan bereiz ditzakegu Europako herrialdeak:

- Izatezko Bikoteen Legea baduten herrialdeak (onartzen diren eskubideak berdinak ez diren arren): Luxemburgo, Danimarka, Suedia, Norvegia, Alemania, Finlandia, Erresuma Batua, Portugal, Frantzia, Hungaria. Sexu berekoek osatutako bikoteak badirela onartzen da juridikoki, eta zenbait eskubide eta betebeharrak ematen zaizkie.
- Ezkontza homosexualaren Legea duten herrialdeak: Espainia, Belgika, Holanda. Homosexualen eta heterosexualen ezkontzak parekotasun hartzen ditu, eskubide berdinak aitortuta: oinordetzak, pensioak, adopzioa, filiazioa...
- Gay/lesbiana kolektiboan aurkako legerik ez duten arren, larriki bazterten dituzten herrialdeak, eta gay eta lesbianeiek osatutako bikoteei inolako eskubiderik aitortzen ez dietenak. Honako hauek dira: Errusia, Bulgaria, Errumania, Albania, Grezia...

Enpatia-ariketa bat ere egitea komeni da, besteren tokian jartzea, alegia. Ikasleei honelako galderak egin diezazkiekegu: Zure sexu-orientazioa homosexuala izango balitz, non bizi nahi zenuke? Zure ustez nola sentitu behar dute Errumanian edo Errusian? Zein eskubide izan nahiko zenituzke?...

3.2.- Gai horren inguruko zenbait berri

Helburuak:

- Eskubideen alde borrokatu behar duten kolektiboak badirela jakitea.
- Urte luzetako lana egin ostean, gay eta lesbianen kolektiboak ezarritako helburuak eta haien sexu-orientazioa normalizatzea lortzen ari direla ulertzea.

Gaitasunak:

- Testuak interpretatzea.
- Irakurritakoa ulertzea.
- Idazmena.
- Mintzamina.
- Hiztegiak kontsultatzea.

Jarduera eta edukia:

Bi albiste labur proposatu ditugu irakurgai gisa. Gay eta lesbianen kolektiboak dira protagonista; zenbait kasutan, klandestinitatean aritu behar izaten dute; bestetan, aldiz, kolektiboen eta plataformen bitartez, modu publikoan lan egin izan dute eta lan egiten dute eskubideak aldarrikatzeko.

Lehenengo berrian honako hau irakur daiteke: kolektiboak pozez zorutzen daudela, diputatuen kongresuan Ezkontza homosexualaren Legea onartu delako, urte luzetako borrokaren eta lanaren ondorioz.

Bigarrenean, beste hau: legedian aurrera egin den arren, kolektibo horrek bazterketa- eta intolerantzia-egoerak pairatu behar dituela, oraindik ere, jende askoren aldetik, eta egoera hori salatzen da. Urtero, 1969. urtean New Yorken izandako gertakaria gogoratzeko, gay, lesbiana eta transexualen sexu-askatasunaren alde ekainaren 28an egiten den manifestazioa da; 1969an, Stonwell Inn homosexualen tabernako bezeroekiko polizia izan zuen jarrera homofoboarengatik protesta eginez, matxinada izan zen ekainaren 28an.

Gay edo lesbiana izatea harrotasunez aldarrikatzen zuen lehenengo manifestaziotzat jotzen da. Bestalde, ikasleei eskatuko diegu hiztegian bilatzeko "homofobo" hitza, bigarren albistean agertzen dena. Homosexualekiko gorroto edo nazka obsesiboa da homofobia.

Halaber, "lesbofobia" hitza bilatzeko ere eskatuko diegu, baina ziur badakigu ez dutela hiztegian topatuko. Hori zergatik izan daitekeen hausnar dezakegu ikasleekin batera; zalantzarik gabe, generoaren gaiak eragin handia izan du historian lesbianismoa gizonezkoen homosexualitatea baino gehiago ezkutatzeko eta bazela ere ukatzeko. Horregatik ez da agertzen, oraingoz, hiztegiatan lesbofobia hitz berria.

Horretaz gain, gehiago inplikatzera anima ditzakegu ikasleak, galderak eginez: haiek zer egin dezaketen bazterketa-egoerarik sor ez dadin, tolerantzian aurrera egiteko zer egon daitekeen haien esku...

4.- Nolakoak dira gure familiak?

Helburuak:

- Familiaren eta aniztasunaren kontzeptuak lantzea ikasleekin, elkarri atxikitako gaiak direla kontuan izanik.
- Sexu bereko gurasoak dituzten familietan bizi diren ikasleei beren bizimoduaz naturaltasunez hitz egiteko aukera erraztea.
- Sexu bereko gurasoak dituzten familiekiko errespetuzko eta tolerantziatzko jarrerak sustatzea.

Gaitasunak:

- Grafikoekin lan egitea.
- Kalkulu matematikoa.
- Idazmena.
- Mintzamina.

Jarduera eta edukia:

Lehenengo ariketan, askotariko familiak badirela jabetuko dira ikasleak; beraz, jendea anitza eta askotarikoa baldin bada, jendeak osatzen dituen familiak ere halakoxeak izango direla ulertzea da kontua. Logikoa denez, familia-egiturak osatzen ditugun gizonen eta emakumeen nahietara eta premietara egokitzen da familia. Horrela bada, gaur egun familiaz hitz egiten denean, sorkuntza “naturelez” izandako seme-alaba biologikoak dituzten guraso heterosexualek osaturiko familia baino askoz ere gehiago hartzen da aintzat.

Jakin badakigu, legearen arabera, sexu bereko lagunek osaturiko bikoteek guraso-eginkizunetan jarduteko aukera badutela, baina errealitate horren aurrean, jende askok aurkako jarrera izan du, bikote horiek seme-alabak hazi eta hezteko egokiak ez direlakoan baitaude. Gay eta lesbianek haurrak adoptatzeko aukerak eta aitaren/amaren eginkizunetan jarduteak eztabaida bizia pizten du profesionalen artean nahiz gizartean.

Hala ere, funtsean, honako galdera hau egin beharko genioke geure buruari: zer behar du benetan haur batek? Galdera horrek erantzun bakarra du: maite, zaindu, babestu eta bere premiei erantzungo dieten helduak behar ditu haurrak bere ondoan. Hari berari jarraiki, aiten eta amen sexu-orientazioaren gaineko gizarte-eztabaida hutsala da eta helduei soilik interesatzen zaie, haurren benetakoa interesetatik urrun geratzen dela.

Hazten eta hezten dituzten haurrentzako atxikimendu-irudi egokiak direla erakutsi izan dute beti gay eta lesbianak. Eta hori funtsezko elementua da homosexualak aita eta ama izateko egokitzen hartzearen alde.

Aldarteren web-orrian topa dezakezue gai horien guztien inguruko dokumentazioa.

www.aldarte.org

- Dibulgazio-koadernoak: “Modelos familiares y cambios sociales: la homoparentalidad a debate”
- Dibulgazio-koadernoak: “Historia del lesbianismo en occidente”
- Dibulgazio-koadernoak: “El prejuicio hacia la homosexualidad y el lesbianismo”
- Dibulgazio-koadernoak: “Lesbianismo y medios de comunicación”

ALDARTEn, gay eta lesbianentzako atentzio zentrua; formazio, informazio, laguntza eta orientaziorako baliabideak ditugu gay, lesbiana zein transexualeentzako eta euren familia, lagun eta ingurukoentzako.

ALDARTEk irakasle-taldeentzako zein orientabide departamentuentzako formazio tailerrak eskaintzen ditu.

Ekintzaren bat antolatu nahi baldin baduzue, irakasle edo ikasleentzako, edo kontsultaren bat egin, **ALDARTE**rekin harremanetan jarri telefonoz, e-mail bidez edo zentrura hurbilduz.

ALDARTEren web orria **www.aldarte.org** gelako lanean tresna erabilgarria izan daiteke.



CENTRO DE ATENCION A GAYS Y LESBIANAS
GAY ETA LESBIANEN ATENZIO ZENTROA

Hemen aurkituko gaituzu:

Berastegi kalea, 5-5. 8 eta 9 departamentuak • 48001 Bilbao
Telefonoa **944237296** • e-mail: **aldarte@aldarte.org**

Ordutegia:

Goizean - astelehenetik-ostiralera: 10.00-13.00
Arratsaldean - astelehenetik-ostiralera: 17.30-21.30

LEHEN HEZKUNTZA
lantzeko koaderno

sexu aniztasuna
eta familia berriak
proiektua

“hurbil erreinua”

1.
zikloa

heziketa
EMAKUNDE
saria
2005

BERDINTASUNA
safia

Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin **“Hurbil Erreina”** izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukiak lantzen dira.

DATA: 2006ko iraila



2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:

Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:



ALDARTE

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnoa.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org



lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

Servicio Vasco “Berdindu”

Etxebizitza eta Gizarte
Galeko Saila

Gran Vía, 85 - 6.
Bilbao

Tfnoa.: 900 840 011
94 403 12 93

berdinu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA


DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN


JARDUEREN AURKIBIDEA

1.- Ezberdintasunak	2
2.- Labirintoa	3
3.- Printzearen puzzlea	4
4.- Irisen puzzlea	6
5.- Printzearen gaztelua	7
6.- Hitz gurutzatuak	8
7.- Asmakizunak	9
8.- Azkarratxinen zakua	10
9.- Zer falta zaie?	11
10.- Letra zopa	12
11.- Erreginaren soinekoa	13
12.- Irisen ametako bat	14
13.- Paisaia	15



jarduera 1


EZBERDINTASUNAK



BI MARRAZKI HAUEN ARTEAN ZAZPI EZBERDINTASUN DAUDE.

BAIETZ AURKITU!!!







jarduera 2

LABIRINTOA

ONDO EGITEN BADITUZU JAKINGO DUZU NOREKIN JOANGO DEN LILA


$\begin{array}{r} 12 \\ +12 \\ \hline \end{array}$	$\begin{array}{r} 15 \\ +15 \\ \hline \end{array}$	$\begin{array}{r} 16 \\ +16 \\ \hline \end{array}$	$\begin{array}{r} 16 \\ +15 \\ \hline \end{array}$	$\begin{array}{r} 21 \\ +21 \\ \hline \end{array}$	$\begin{array}{r} 18 \\ +17 \\ \hline \end{array}$
--	--	--	--	--	--












jarduera 3

PRINTZEAREN PUZZLEA




PRINTZEAREN PUZZLEA






jarduera 5

PRINTZEAREN GAZTELUA







jarduera 6

HITZ GURUTZATUAK

A. ARRASTAKA IBILTZEN DIREN ANIMALIATXOAK


1. ANTZERKIAN ESATEN DUTE: "KRESALA EMATEN DUEN...DAGO"
2. LEKU BATETIK BESTERA JOATEKO ERABILTZEN ZEN ANIMALIA
3. NESKA BATEN IZENA
4. LILAK MAITE DUEN NESKA
5. ERREGEAREN SEMEA






jarduera 7

ASMAKIZUNAK




BASERRITARRA DA.
BAHITU EGIN DUTE.
PRINTZEAK BERAREKIN
EZKONDU NAHI DU.
NOR DA? _____

MOZORROTUTA
LILA ASKATU DUT.
BERAK MAITE NAU.
NOR NAIZ? _____



EZKONDU NAHI DUT.
GAZTELU BATEAN
BIZI NAIZ.
OSO DOTOREA NAIZ.
NOR NAIZ? _____

jarduera 8




AZKARRATXINEN ZAKUA




ZAKUAN DAUDEN LETREKIN HITZAK EGIN:


BI HARTU ETA ESALDI BAT EGIN:





jarduera 9


ZER FALTA ZAIE?













jarduera 10


LETRA ZOPA



L	I	L	A	B	D	F	G	H	Z	D
P	R	I	N	C	I	P	E	G	X	B
H	I	J	K	L	M	N	O	F	R	X
P	S	R	S	T	U	V	X	E	T	V
K	O	P	L	A	S	Z	B	D	S	U
A	Z	K	A	R	R	A	T	X	I	N



Jarduera 11




ERREGINAREN SOINEKOA


ERREGINAK SOINEKOA HIZKIZ ETA ZENBAKIZ BETETA DAUKA. ARRETA HANDIZ BEGIRATU ETA GALDEREI ERANTZUNA EMANI:

ZENBAKI BAT BEHIN BAKARRIK DAGO. ZEIN DA? _____

ZENBAKI BI BITAN DAUDE, ZEIN DIRA? _____


HIRU LETRA BEHIN BAKARRIK AGERTZEN DIRA. ZEIN DIRA? _____
ZENBAT ZENBAKI DAGO GUZTIRA? _____





Jarduera 12

IRISEN AMETAKO BAT





BILATU ZENBAKI BERA DUTEN SILABAK

ORDENATU ETA HITZAK OSATUKO DITUZU

1	
2	
3	
4	
5	

jarduera 13

PAISAIA



LEHEN HEZKUNTZA
lantzeko koaderno



sexu aniztasuna
eta familia berriak
proiektua

“hurbil erreinua”

2.
zikloa

heziketa
EMAKUNDE
saria
2005

BERDINTASUNA
saria



Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin **“Hurbil Erreina”** izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukiak lantzen dira.

DATA: 2006ko iraila



2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:

Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:



ALDARTE

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnoa.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org



lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

Servicio Vasco “Berdindu”

Etxebizitza eta Gizarte
Gaieko Saila

Gran Vía, 85 - 6.
Bilbao

Tfnoa.: 900 840 011
94 403 12 93

berdinu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA


DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

JARDUEREN AURKIBIDEA

1.- “Hurbil Erreinua” ipuina, amaierak eta galderak	2
2.- Esaldiak osatu	8
3.- Desberdintasunak	9
4.- Gazteluak	10
5.- Mezu ezkutatua	11
6.- Hitz ezkutatuak	12
7.- Simetriak	13
8.- Buruketa 1	14
9.- Buruketa 2	15
10.- Gure Klasea	16
11.- Lilaren puzzlea	18
12.- Irisen puzzlea	19



jarduera 1

“HURBIL ERREINUA” IPUINA

Bazen behin, oso hurbil zegoen erresuma bat. Hurbil erresuma zuen izena.


Hurbileko Erregina oso kezkatuta zegoen, bere semeak urtetan aurrera egin arren ez zuelako emazterik hartzen.

Erreginak Konde lagunari eskatzen zion aholkua arazoari konponbidea bilatzeko. Kondea, berriz, oso pozik zegoen erresumaren jabe izateko aukera ikusten baitzuen.

Udaberriko goiz eguzkitsu batean, Kondeak eta Erreginak printzeari esan zioten munduko leku askotako printzesak etorri zirela gaztelura eta haien artean bere emaztea izango zena aukeratu behar zuela.

Printzeak ez zuen horretarako gogorik, baina amore eman eta printzesak ikustea onartu zuen. Banan-banan sartu ziren guztiak gazteluko areto nagusira eta bat bera ere ez zen Printzearen gustukoa izan.

Erregina, gero eta kezkatuago, Kondearengana joan zen aholku eske.



Printzeak Hurbileko erresumetako printzesak gaitzetsi egin zituenez, Urrun erreinuan bizi omen ziren neska ederretako bat bahitzea bururatu zitzaion Kondeari, eta, horretarako, bi morroi bidaliko zituen.

Hara non bada, Kondearen bi morroi zaldiak hartu eta bidean jarri ziren. Bide luzea egin ondoren, zuhaitz zahar baten itzalpean etzan ziren atsedena hartu eta norantz joan edo zer egin behar zuten erabakitzeko.

Hantxe zirela, bertako bi neska hurbildu ziren zaldi gainean barre algaraka.

Hori entzutean, morroiak sasi ostean ezkutatu eta zelatan geratu ziren. Neskak elkar musuka eta besarka ikustean zur eta lur geratu ziren bi morroiak, Urruneko erresuma hartako ohiturak izango zirelakoan.

Neskengana hurbildu eta Kondeak agindutako dama aurkitu behar zuten iturriaz galdetu zieten. Bidea erakutsi eta berriz ere zaldi gaineko lasterketa egiteko prestatu ziren neskak, Lila eta Iris.

Lilak laburbide bat aukeratu zuen lehenago iristeko asmoz, baina tupustean, morroi biak aurrez aurre aurkitu zituen. Morroiek Lila zakuan sartu zuten eta gaztelurantz abiatu ziren.

Beste neska, Iris izenekoa, iturrira ailegatu zen eta bere laguna ez zetorrela ikustean, haren bila hasi zen, beti bezala jolasean arituko zelakoan. Baina halako batean Lilaren zaldia aurkitu zuen eta gertatutakoaz ohartu zen.

Adorea galdu barik, zer egin pentsatzen egon zen harkaitz baten gainean eserita. Horretan zegoela, beren bi amak agertu ziren eta Lilaren bila joateko animoak eman zizkieten.

Bere zaldi gainean jarri eta Hurbil erresumako gaztelurantz abiatu zen Iris, haizea bezain azkar, ezer larririk gertatu baino lehen ailegatzeko.



LEHENENGO AMAIERA



Bi lapurrak gaztelura ailegatu zirenean Kondeari erakutsi zioten lortutako “altxorra” eta Kondeak oso gustukoa izan zuen. Erreginari ere gustatu zitzaion eta bere semearen ezkontza prestatzen hasi zuen.

Irisek, amarruak erabilia, etsai guztiei irabazi zien pixkanaka-pixkanaka, baina zarata handia atera zuen, eta zer gertatzen ote zen ikustera hurbildu zen Printzea ere gazteluko areto nagusira. Iris ikustean guztiz maiteminduta geratu zen, eta Irisek ez zuen arazorik izan Printzea beste guztiekin batera giltzapean uzteko.


Irisek Lila askatu eta Urrun erreinura abiatu ziren biak, elkarrekin gozo-gozo bizitzeko.

BIGARREN AMAIERA

Printzea ikustean, Iris liluratuta geratu zen. Bere bihotz- taupadak azkartu eta konortea galduko zuela iruditu zitzaion.

Printzeak Iris besoetan hartu eta elizara eraman zuen, eta, dena prest-prest zegoenez, Irisekin ezkondu zen, erregina ezertaz konturatu baino lehen.

Hori gertatzen zen bitartean, Lila askatu egin zen eta gaztelutik hanka egitean, Kondearekin egin zuen topo. Kondeak berarekin ezkontzeko eskatu zion, nahi beste altxor emango ziola esanez. Baina Lilak bere "lagun" Iris zuen gogoan eta etxera alde egin zuen. Hantxe geratu zen Irisen zain, egun bat, beste bat...



HIRUGARREN AMAIERA

Gaztelurako bidean, Urrun erresuman ikusitakoaz hitz egiten hasi ziren Koplak eta Azkarratxin. Bi neskak elkar besarkatuz eta musukatuz oso zoriontsu zirela ematen zuen.

Koplas ere oso ondo sentitzen zen Azkarratxinekin zegoenean eta agian eurak biak ere neskak bizi ziren erresuma hartara joan zitezkeela esan zion bere lagunari.

Hori entzutean, Azkarratxin harrিতuta geratu zen, baina elkarrekin zeudenean bera ere oso gustura zegoela konturatu zen eta pozik hartu zuen Koplasek esandakoa.

Birritan pentsatu barik, Lila askatu eta elkarrekin joan ziren Urrun erresumara.

Handik aurrera, oso pozik bizi izan ziren laurak eta ahaztu egin zuten Hurbil erresuma.



GALDERAK

Aukeratu amaiera bat, edota asmatu beste bat.

Gogoratu ikusitako txotxongilo lana eta margotu pertsonaiak. Gero deskribapenak idatzi. Nahi baduzu, hasi baino lehen, ipuina irakurri edo bideoa ikus dezakezu.

1.-Hurbil erresuma eta Urrun erresumaren artean desberdintasunik ikusten duzu? Zein dira?

.....

.....

.....

2.- Nork bahitu zuen Lila, eta zergatik?

.....

.....

3.- Nola eraman zuten gaztelura?

.....

.....

4.- Nori lagundu zion Irisek?


.....

.....

5.- Zu Lila izango bazina, zer egingo zenuke?

.....

.....



jarduera 2

ESALDIAK OSATU

a.- Eguzkia "irteten den" puntu kardinala.

b.- Edozer oratuta eduki, mantendu edota lehenago izandako egoeran iraun, erasoei aurre eginez.

d.- Erregetza bateko buru den emakumea.

e.- Egitekoa.

f.- Defentsarako harresiz eta lubanez inguratutik eginiko horma trinkodun eraikuntza.

g.- Itsasoko ur gazia.

h.- Estatu batek atzerrian izaten duen ordezkaria.

i.- Ikusmen faltaren zioz ikusten ez duena.

j.- Hatz egiteko nahia, gogoa, hazgalea.

1.- Erregina

2.- Gaztelua

3.- Ekialdea

4.- Itsua

5.- Zeregina

6.- Kresala

7.- Hazkura

8.- Enbaxadorea

9.- Eutsi

Erlaziona itzazu hitzak eta esanahiak esaldiak osatuz.

1.- _____

2.- _____

3.- _____

4.- _____


5.- _____

6.- _____

7.- _____

8.- _____

9.- _____




jarduera 3

DESBERDINTASUNAK



Idatzi aurkitzen dituzun desberdintasunak ondoko lerro hauetan



jarduera 4

GAZTELUAK

Beheko lau gazteluetan 8, 16, 23 eta 30 zenbakiak daude ezkutaturik.

Zein zenbaki dago gaztelu bakoitzean? Kontuz!!! E gazteluan esaten dena ez da egia!!!!

A) Gaztelu honetan dagoena 5eko taulan dago.



B) Gaztelu honetan dagoena beste batean dagoenaren erdia da.



D) Gaztelu honek zerbait dauka.



E) Gaztelu honetan dagoena ez da bakoitia.




A) = _____

B) = _____

C) = _____

D) = _____



jarduera 5

MEZU EZKUTATUA

D	I	R	S	E	K	L	A	N	B	J	O	Z
0	2	4	6	20	24	30	81	49	64	25	42	21




2X1 2X2 2X1 3X2

6X5 2X1 6X5 9X9 2X2 5X4 7X7

8X8 2X1 6X5 9X9 5X5 7X6 9X9 7X7

7X3 5X4 7X7 8X8 5X4 2X2 5X4

7X3 9X9 6X5 9X0 2X1 7X3



jarduera 6

HITZ EZKUTATUAK

171	51	98	125	144	200
TZEA	I	LA	PRIN	RIS	LI

$$\begin{array}{r} 25 \\ \times 5 \\ \hline \end{array}$$

.....

.....

$$\begin{array}{r} 19 \\ \times 9 \\ \hline \end{array}$$

.....

.....



$$\begin{array}{r} 25 \\ \times 8 \\ \hline \end{array}$$

.....

.....

$$\begin{array}{r} 14 \\ \times 7 \\ \hline \end{array}$$

.....

.....



$$\begin{array}{r} 17 \\ \times 3 \\ \hline \end{array}$$

.....


.....

$$\begin{array}{r} 36 \\ \times 4 \\ \hline \end{array}$$

.....

.....






jarduera 7

SIMETRIAK

Egin ezazu printzeari eta armadurari falta zaien beste erdia.






jarduera 8


BURUKETA 1

Lila bahitu egin zutela konturatu zenean, Irisek bere zaldia hartu zuen Lilaren bila joateko. Ordubete eta erdi ibili ostean, 15 minutuko atsedena hartu zuen, bere zaldiak jan zezan. Gero berrogeita bost minutuz ibili zen zaldi gainean. Beste ordu laurden bat hartu zuen berak zerbait bazkaltzeko, eta 50 minutuko lasterketaldia egin ondoren heldu zen.

Zenbat denbora iraun zuen Irisen bidaiak?

.....





jarduera 9

BURUKETA 2


Azkarratxin eta Koplas beste erreinura joan ziren. Lehengo egunean 17 km egin zituzten. Bigarrenengan aurreko egunean beste egin zituztenez, zenbat km egin zituzten 2 egunetan?

.....

Lila hartuta itzuli ziren. Zenbat km egin zuten joan-etorria egin ondoren?

.....





jarduera 10

GURE KLASEA

Bakoitzak berea egingo du, eta gero, grafiko bat bete behar duzue denon artean.


Erantzun: Norekin bizi zara?

- a) Ama, aita eta anai-arrebekin.
- b) Ama eta aitarekin.
- c) Ama eta anai-arrebekin.
- d) Amarekin.
- e) Aita eta anai-arrebekin.
- f) Aitarekin.
- g) Ama, ama eta anai-arrebekin.
- h) Ama eta amarekin.
- i) Aita, aita eta anai-arrebekin.
- j) Aita eta aitarekin.

Aztertu galderak

A	
B	
C	
D	
E	
F	
G	
H	
I	
J	

GURE KLASEA: GRAFIKOA



Grafikoa bete ondoren, aztertu zer familia mota ezberdin dauden, eta klasean eztabaidatu.

.....


.....

.....

.....


.....


.....



jarduera 11

LILAREN PUZZLEA






jarduera 12


IRISEN PUZZLEA



10



63



27




64




48



81



36



28




16



56

IRISEN PUZZLEA



LEHEN HEZKUNTZA

lantzeko koaderno

sexu aniztasuna
eta familia berriak
proiektua

"hurbil erreinua"

3.
zikloa

heziketa
EMAKUNDE
saria
2005

BERDINTASUNA
safia

Material didaktiko hauek **“SEXU ANIZTASUNA ETA FAMILIA BERRIAK”** izeneko proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektu hori Lehen Hezkuntzako neska-mutilei zuzenduta dago.

Proiektuaren bitartez apustu egiten da aniztasunean oinarritutako hezkuntza irekiaren alde, afektibitate eta sexualitate mota guztiak errespetatuz.

Material didaktiko hauekin **“Hurbil Erreina”** izeneko txotxongilo-antzezlanaren DVD bideoan agertzen diren homosexualitate, lesbianismo eta homoparentalitatearen inguruko edukiak lantzen dira.

DATA: 2006ko iraila



2. edizioa zuzendatuta

Inskrizio zbkia: BI-2897-06

Material hauen prestaketan parte hartu dute:

Jesús Mentxaka, Inmaculada Mujika, Ana Ureta eta Amparo Villar.

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



PROIEKTUAREN ANTOLATZAILEAK:



ALDARTE

K/ Berastegi, 5 - 5., dptoa: 8 - 9

Abando metro geltokia

48001 Bilbao

Tfnoa.: 94 423 72 96

aldarte@aldarte.org

www.aldarte.org



lesbiana, gay eta transexualen arretarako euskal zerbitzua
servicio vasco de atención a lesbianas, gays y transexuales

Servicio Vasco “Berdindu”

Etxebizitza eta Gizarte
Galeko Saila

Gran Vía, 85 - 6.
Bilbao

Tfnoa.: 900 840 011
94 403 12 93

berdinu@ej-gv.es

DIRU-LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social


DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

JARDUEREN AURKIBIDEA

1.- “Hurbileko Erresuma” obraren gidoia eta horri buruzko galderak.	2
2.- Ba al duzu historiaren berri?	14
3.- Berdinak gara eta eskubide berberak ditugu: gay eta lesbianen lege-egoera Europan	20
3.1.- Ezagut dezagun Europako mapa	21
3.2.- Gai horren inguruko zenbait berri.....	22
4.- Nolakoak dira gure familiak?	24
4.1.- Egin dezagun grafiko bat	24
4.2.- Argazkiekin lan eginez	25

jarduera 1



“HURBILEKO ERRESUMA” OBRAREN GIDOIA ETA HORRI BURUZKO GALDERAK

Hauxe da “Hurbileko Erresuma” antzezlanaren gidoia, baina ez da DVDn ikusi duzun txotxongilo-saioa, desberdina baita.

Ekimen hau gauzatzeko, denon artean irakurri behar da gidoia gelan, eta antzezpen bat prestatu. Mozorrotu ahal izango zarete edo panpinak egin. Bururatzen zaizkizuen material guztiak erabil ditzakezue, antzezpen polit bat prestatzea helburutzat hartuta.

Antzezpenean 17 pertsonaia daude. Ez ahaztu narratzaile bat ere behar dela, unean-unean gertatzen dena kontatzeko.

“HURBILEKO ERRESUMA”

PERSONAIA NAGUSIA:

- Lila (Urruneko Erresumako nekazaria)
- Iris (pertsonaia mozorrotua)
- Hurbileko Printzea (erregegaia)
- Kondea (morroi ustela)
- Koplas (indartsua)
- Azkarratxin (ezpataria)

BIGARREN MAILAKO PERTSONAIAK

- Kimera doktorea (aztia)
- Emaztegaia
- Zizaretxoak (3 dira)
- Behorra
- Zerriak (2 dira)

KONTALARIA

EKITALDIA LABURPENEA

1. EKITALDIA. PRINTZESA BILA

Hurbileko Printzea emazte bila dabil Hurbileko Erresumako errege bilakatzeko. Kondeak (Printzearen morroi ustela) Lila aukeratu du, Urruneko Erresumako nekazaria, jauregira joan eta Printzearekin ezkon dadin. Lilak ezetz esaten dio eskaintzari, zorionsua baita Irisekin eta ez dio axola bere patuari aurre egitea.

2. EKITALDIA. LILAREN BAHIKETA

Hurbileko Printzeak, Lilaren ezetzak haserreturik, bi gaizkile kontratatzen ditu (Azkarratxin eta Koplas) haren bila joan eta indarrez ekar dezaten. Irisek bahiketa ikusten du eta bere bihotzeko kutuna erreskatatzea erabakitzen du, horretarako gaizkileekin borrokatu behar badu ere.

3. EKITALDIA. IRISEN ERRESKATEA

Azkarratxin eta Koplas jauregira doaz Lila eramatera. Mozorroturiko pertsonaia ilun eta misteriotsu batek segitzen die gertutik. Bidean atsedendaldia egiten ari direla, iluntzean, gaizkileak ustekabeen harrapatu eta Lila askatzen du pertsonaia horrek. Geroago jakingo du Lilak pertsonaia mozorrotua nor den.

4. EKITALDIA. SEGADA

Hurbileko Printzeak eta haren armadak Lila eta pertsonaia mozorrotua ustekabeen harrapatu eta atxilotu egingo dituzte. Pertsonaia mozorrotua leotzetara sartuko dute eta Lila gela batera eramango dute ezkontza unera arte.

5. EKITALDIA. HUTS EGINDAKO EZKONTZA ETA BUKAERA

Gazteluko leotzetan Azkarratxin, Koplas eta Iris bilduko dira eta Hurbileko Printzearen egitasmo maltzurren berri izan ondoren, Kimera doktorearen laguntza eskatuko dute. Denen artean plana asmatuko dute Lila askatu eta Printzeari eta Kondeari ordain egokia emateko.

1. Ekitaldia - Printzesa bila

Aurkezpena eta 1. agerraldia

(Erdi Aroko musika eta Off-eko ahotsa, pregoia bailitzan)

Hurbileko Erresuma izena zuen erresuma batean, hemendik oso hurbil, hain hurbil non hemen bertan zegoen... (Soinu efektua, Hurbileko Erresuma agertzen da).

Bazen behin Printze bat, Printzesa bat bilatzen ari zen harekin ezkontzeko, horrela errege bilakatuko baitzen eta agintea eskuratuko. (Hurbileko Printzea sartzen da).

Printzea:

-Kondeee jaunaaa! Kondea! Non? Non ezkutatu da Kondea? Non? Hara, Kondea, aurkitu al duzu nire Printzesa?

Kondea:

-Oraindik ez, jauna, merezi duen printzesarik ez dut aurkitu Hurbileko Erresuma osoan...

Printzea:

-Eta zeren zain zaude, babo halakoa?! Zoaz Urruneko Erresumara eta bila ezazu bilatu beharrekoa...

(Erdi Aroko musika eta Off-eko ahotsa).

Hurbileko Erresumatik gertu, baina ez hain gertu, hobe esanda, urrun samar, Urruneko Erresuma zegoen (Soinu efektua. Urruneko Erresuma agertzen da), eta haraino heldu zen Kondea Printzesaren bila (Zaldi trostaren soinua. Kondea lauhazkan sartzen da).

Kondea:

-Ez dut printzesarik ikusi, haserretuko zait nagusia... (Ortzemugari begira dagoela, hurbiltzen diren urruneko ahotsak entzuten dira).

Kondea:

-Hemen begiratuko dut, marraskilo eta bareen artean...

(Begiratzeko makurtu da eta printzesagai mordo agertuko da. Jaikitzerakoan izutu egingo da eta printzesagai guztiak hizketan hasiko dira, denak batera).

Printzesagaien korua:

-Ni, Ni, Ni, Ni lehenago heldu naiz....., nik Internetez egin dut eskaera... (zalaparta)

Kondea:

-Ixxooooo! Ea bada.... ikustagun.... zera.... mmmmm, Ea bada, mmmmm, zera... mmmmm!

(Errebista egiten die eta bat bera ere ez du gustuko).

Printzesagaien korua:

-(Kondea dela-eta, kristorenak esaka alde egiten dute) ...esaten zuen bada, nire amak... casting hauek guztiak berdinak dira...

(Urrunean Lila eta Irisen ahotsak entzuten dira, printzesa eta heroietara jolasten ari dira, Kondea ezkutatu egiten da haiek ikusteko)

Lila:

-Hemendik, ene maitea (Esaldi guztiak neurritz gain dramatizatuz eta dibertitzen ari direla), segi zure ibilbideari eta aska nazazu, ja, ja, ja!

Iris:

-Askatuko zaitut, ez izan dudarik, baina horren aurretik... bat, bi, hiru, lau, hogeita zazpi herensuge hauek akabatu behar ditut... Aaaa! piztia ankerrak!. Ji, ji, ji.... (Eskuan ezpata duela herensugeekin borrokan ari delako itxura egiten du)

Lila:

-Bai, bai, borroka zaitetz horrela! Zu bai ausarta, ene andere maitea, ez etsi eta izango duzu horren ordaina... Eta judo giltza hori?... Hori bai artea, hori bai abilezia!

Iris:

*Mmmmmm! Norberaren defentsarako ikastaro batean ikasi nuen hau...
(Biek egiten diote barre jolasari)*

Iris:

-Kontuz! Zure ondoan...! (borrokan segitzen du, piztiak gainditzen ditu eta Lilaren ondoan uzkuratzen da) Salbaturik zaude... Baina, esadazu, maite al nauzu, andere ederra?

Lila:

*-Arraintxoak ura baino maiteago, ene anderea (Musu gozoak ematen dizkiote elkarri) Paaaaaaa"
(Kondeak harriturik begiratzen die ezkutalekutik, aurrera egin eta ikusleei hitz egiten die...)*

Kondea:

*-(Ikusleei) Baina, zer da hau!! Bi neska elkarri musuka!! Hau nazka!!! Eta dudarik ez dago ondo datozela elkarrekin, are gehiago, ematen du... elkar maite dutela! Nora helduko gara, gero! Tira... ni neurera, horretara etorri naiz eta. Hara, bietako edozein izan liteke printzesa paregabea, baina, ondo pentsatuta, txikienak finagoa ematen du. Bai, hura izango da! (Lila aukeratzen du)
(Haienganantz doala) Zera, bada... Paaaaaaa (moztu egiten die). Hurbileko Erresumako Kondea naiz eta zu Printzearen emaztea izango zara...*

Lila:

-Urruneko Erresumako nekazaria naiz eta zu burutik jota zaude...

Kondea:

-Printzearen partetik nator eta ezin duzu ezetz esan...

Lila:

-Neure partetik nator eta oraintxe esan dut ezetz...

Kondea:

-Ezetz heriotza da!

Lila:

-Hil nazazu, nahi baduzu, baina ez naiz joango... Iris, goazen... (Irisen gainera igotzen da eta zaldikoan bezala alde egiten dute).

Kondea:

-Hau zorigaitza nirea, banoa Printzeari kontatzera Urrunean gertatu dena...

(Musika, iluntasuna eta lehen ekitaldiaren amaiera)

2. Ekitaldia - Lilaren bahiketa

1. agerraldia

(Musika bukatzen da, Jauregiko turutak entzuten dira eta eszena argitzen da. Printzea haserre sartzen da eta Kondea burumakur)

Printzea:

-Ezin da izan, ezin da izan!!!! Esan al zenion onean edo txarrean berdín diola?

Kondea:

-Bai, bai... ezkontza edo heriotza, esan nion...

Printzea:

-Eta, zer aukeratu zuen?

Kondea:

-Heriotza, ene jauna, heriotza aukeratu zuen...

Printzea:

-Ulertezina da, baina! Nola izan dezake nahiago hiltzea nirekin ezkontzea baino?, pagotxa naiz ni eta! Kitto... berak nahi izan du hala! Onean ez bada, txarrean izango da... Bila itzazu nire soldaduen artean gaiztoenak eta indarrez ekar dezatela.

2. agerraldia

(Musika eta off-eko ahotsa) Horrela bada, Kondeak bi gaizkile zital kontratatu zituen, Azkarratxin, ezpatari beldurgarria, eta Koplak, pentsatu ez baina beti erriman hitz egiten zuen indartsua, nekazari managaitzaren bila joan zitezen.

(Musika, eszena argituko da. Azkarratxin eta Koplasek eszena zeharkatuko dute usnan. Iris eta Lila agertuko dira, ezkutaketan jolasten ari direla)

Iris:

-Non gordeko naiz, Ai!, ez nazala harrapatu... hementxe bertan (Urrunean Lilaren ahotsa entzuten da, kontaktzen ari dela)

Lila:

-63, 64, 65, 66, 67, 68, 69... Banoaaaa! (Eszenara sartzen da)... Hemen... ezer ere ez, ea handik... seguru handik sartu dela...

(Neskak eszenatik atera eta Azkarratxin eta Koplak sartzen dira, Kondeak emandako deskripzioa erreparatzen ari direla)

Azkarratxin:

-Gogoan izan: ezpala bezain argala, eperra bezain ederra, arrastiria bezain ezta...

Koplas:

-Ederretan ederra galeperra...

Azkarratxin:

-Utzi errimak eta bila dezagun...

Koplas:

-Bai, bai... Bila bilaka, printzesa topaka...

(Eszena zeharkatzen dute eta Iris, fidagaitz, ezkutalekutik ateratzen da)

Iris:

-(Ikusleei) Mmmm! Hemen bada zerbait... Susmo txarra ematen dit honek, zer edo zer badarabilte buruan, atzetik joango natzaie, bada ez bada ere...

(Iris eszenatik ateratzen da soldaduen atzetik. Suspense musika – Azkarratxin eta Koplak agertzen dira berriro eta, ahotsak entzutean, gelditu eta ezkutatu egiten dira)

Azkarratxin:

-Ez duk urrun ibiliko. Aizak, Koplas, Urruneko Erresuma duk hau...

Koplas:

*-Urrunekoa, ez da izango makurrekoa.... Je, je, je.
(Bila dabilela, izkinatik agertzen da Lila)*

Lila:

-Ene maiteeeeee.... Kutuuuuna... Iriisssss! Aurkitu egingo zaituuuuuuut!

Azkarratxin:

-Gorde gaitezen hesiaren atzean, Koplas...

Koplas:

-Hesiaren atzian, geziaren abian...

Azkarratxin:

-Ixxxxoooo!

Lila:

-Iris, Iristxo, eder hori! Non sartu zara?

(Azkarratxin eta Koplas, elkarri xuxurlaka)

-Horixe duk, dudarik ez zagok – Goazen, lagun, harrapa dezagun...

(Azkarratxin eta Koplas Lila harrapatu eta alde egiten dute. Irisek dena ikusi du)

Iris:

(Jendeari, haserre)

Ikusi al duzue? Sinestezina da, bahitu egin dute. Azal lodia behar horretarako! Jauregira eraman eta printzearekin ezkontaraziko dute. Bada, hori baino lehen, ni hil beharko naute... (estrategia asmatzen du). Badakit, zaldia eskatuko diot inudeari, gertutik segitu ahal izateko, eta amatxori aititaren sarea borrokan egiteko, (elkarrizketa sortu ikusleekin). Ikusiko dute orduan, horixe baietz ikusiko dutela! Askatuko zaitut, Lila... egiten dudan azken gauza bada ere.

(Iris agertokitik ateratzen da. Musika eta iluntasuna. 2. ekitaldiaren amaiera).

3. Ekitaldia - Lilaren erreskatea

1. agerraldia

(Gaua, animalien zaratak entzuten dira. Azkarratxin eta Koplas jauregirantz doaz, zaku baten barruan Lila daramate, indarrean)

Azkarratxin:

-Tira, tira, ez duk horren zaila izan nekazari hau bahitzea, ja, ja, ja... Orain bai sari ederra jasoko dugula... Pozarren egongo duk Printzea!!!

Koplas:

-Bai Printzea, bai haren ohantzea!!!

Azkarratxin:

-Ixxooo! Ixo, oin hotsak entzun uste ditiat. Tira, nekea izango duk, hemen geldituko gaituk atsedean hartzera...

(Sasien artean zerbait mugitzen delako zarata entzuten da)

Koplas:

-AAAAAA! Azkarratxin, zin egiten diat basurde bat ikusi dudala!!! Beltza zuan, ez, ez, beltza ez! Beltz-beltza, ezin beltzagoa!!!!!!

Azkarratxin:

-Ai, Koplas! Hi haizen handiarekin eta koldar hutsa haiz! Ez larritu, ezpata ondo-ondoan dudala egingo diat lo... Hara! Hurbildu ezak zakua, barruan izango duk gure harrapakina, je je, je.

Koplas:

-Harrapakina izango duk mozkina...

(Apurka-apurka loak hartzen ditu eta zurrungak entzuten dira, oso gau iluna da. Pertsonaia Misteriotsua azaltzen da eta, pixkanaka, zakua eszenatik kanpora bultzatzen du)

Koplas:

-E? A! Zer duk hori! Aibala!!! (Ikusleei) Zakua mugitzen ari da... ez da ala? Azkarratxini esanez gero, ezin gauza onik espero... oi, oi,oi!

(Pertsonaia misteriotsuak sarea haien gainera bota eta trabatuta uzten ditu)

-Zer duk hau? Harrapatuta gaudek... Azkarratxin, esna hadi!

Azkarratxin:

-Koplas!!! Egin ezak zerbait!!! Amarru bat duk hau!!! Neska eraman ditek!!!

Koplas:

-Haiek neska eraman eta gu hemen baldan... Laguntza!!! Hau nahasmena, nagusi!

(Iluntasuna eta agerraldiaren amaiera. Musika eta Off-eko ahotsa.)

Eta horrela, Azkarratxin eta Koplas neskarik gabe itzuli ziren jauregira eta gertatutakoa kontatu zioten Printzeari. Printzeak, haserre bizi, leotzetan entzerratu zituen eta Lilaren bila bera abiatzea erabaki zuen.

2. agerraldia

(Egunsentia, txoritxoak eta zaldien trosta aditzen dira. Pertsonaia moxorrotua sartzen da, Lilarekin zaldi gainean. Zalditik jaisten dira)

Lila:

-Azkenik!!! (kexaka), eskerrak askatzeagatik (ironiaz), normahi zarela ere, baina nazkatuta nago jendeak ni bahitzeaz. Ez naiz printzesa, ez eta gura ere; hortaz, inporta ez badizu, banao, prestatuta nago eta...

Iris:

-Egon apur batean!

(Une berezia adierazten duen musika. Pertsonaia mozorrotuak nor den erakusten du)

Lila:

-Arranopola! Zeu zara! Gora nire askatzaileaaaaa!!! Iris, sekula ez nuen pentsatuko hain adoretsua zinenik...

Iris:

-Ezta nik ere... eta neskak adoretsuak ez garela esango dute gero. Baina ez nengoen prest txotxolo horiek zu harrapatu eta, hala, haiek nahi dutelako printzesa bilaka zintezen!!! Arrazoia zuten inudeak eta amak, betiere kontuz ibili...

Lila:

Oi! Iris, hau zoriona! Gora nire askatzaileaaaaa!!! Pa, pa, pa eta paaaaaaa!

(Biolinak entzuten dira nonahi eta...)

4. Ekitaldia - Segada

1. agerraldia

(Printzea ustekabeen sartzen da eszenan eta Lila eta Iris elkarri musu ematen harrapatzen ditu. Eten egiten ditu. Biolinak desafinatu egiten dira)

Printzea:

-Geldi hor! Geeeeldi!! Harrapatu egin zaituztet! Errendi zaitetze!

Neskak:

-Ezta pentsatu ere!

Printzea:

-Errendi zaitetze edo hilko zaituztet. Lila nirekin ezkontzen ez bada.... Gggghhhh!

(Lepoa moztu keinua egiten du)

Neskak:

-Amore emango dut!-- Ez dut amore emango (Kontraesanetan aritzen dira tarte batez, ping-pongean jolasean arituko bailiran) Amore emango dut- - Ez dut amore emango....

Printzea:

-Nahikoa!!!! Zer erabaki duzue?

Iris:

-Badakit, herri-galdeketa bat egingo dugu! (Ikusleei)

Ea, gogoz kontra bada ere Lilak Printzearekin ezkondu behar duela uste dutenek altxa dezatela eskua...!

Ondo da, orain altxa dezatela eskua uste dutenek Lilak nirekin ezkondu behar duela, ni maite nauelako...!

(Elkarrizketa ikusleekin)

Printzea:

*-Niri bost jende horrek zer uste duen. Hara! Zu leotzetara joango zara, eta zu, ahaztu mari mutil hori eta zoaz ezkontzeko prestatzera!
(Ezpataz bultzaka eramaten ditu).*

(Iluntasuna eta musika dramatikoa, galeretakoa edo).

5. Ekitaldia - Huts egindako ezkontza eta bukaera

1. agerraldia

(Musika apaldu egiten da eta leotzetako dekoratua azaltzen da. Barruan Azkarratxin eta Koplas daude. Atearen kirrinka hotsa entzuten da eta Iris barrura botatzen dute. Harritu egiten dira elkar topo egitean. Printzearen eta Kondearen ahotsak entzuten dira. Off-eko ahotsa)

Kondea:

-Ja, ja, ja... Badaude denak behar duten tokian... aspergarri horiek leotzetan eta Lila gelan entzerratua...

Printzea:

-Je, je, je, harekin ezkondu bezain pronto Errege izango naiz, eta orduan pikutara bidaliko dut neska, je, je, je...

Kondea:

-Eta orduan Urruneko Erresuma inbadituko dugu eta ahaltsuenak izango gara.... Ja, ja, ja...

(Preso daudenek Printzearen eta Kondearen plan maltzurak entzuten dituzte)

Iris:

-Entzun al duzue? Bizkor, zerbait egin behar dugu!

Azkarratxin:

-Hemendik irten behar dugu!!!

Iris:

-Lagundu, mesedez, ezkontza hori oztopatu behar dut, kosta ahala kosta!

Koplas:

-Bai, bai, ez dadila horrelakorik gerta ...!

(Kimera doktorea sartzen da, hortz artean kantatzen)

Kimera:

-Laraila, laraila... Kondeak baimena eman dit nire azken formula presoetako batekin probatzeko...

Presoak:

-E! Aizu! Laguntza... laguntza behar dugu... hemendik irten behar dugu, presazkoa da!

Kimera:

-Laguntzarik nahi al duzue? Bada, orduan, nire azken formula probatuko beharko duzue... Funtzionatzen badu, erraz aterako zarete, tximeleta bilakatuko baitzarete... eta hegan, hegan, hegan, egin ahal izango duzue...

Iris:

-Ekarri hona edabe hori, agure txoroa, ezin dugu denbora galdu!

Kimera:

-Edan eta berehala ikusiko dugu zer gertatzen den...

(Edabea hartu eta zizare bilakatzen dira. Soinu efektua eta kea)

Kimera:

(Zizareei begira)

-Ui, ui, uiiiiii!! Uste dut pasatu egin naizela ozpinarekin... inor ez da perfektua.. laraila, laraila...

(Kimera doktorea eszenatik ateratzen da. Zizare bilakatutako presoak burdinen artetik ateratzen dira... eta badoaz Lila askatzera)

(Iluntasuna eta tentsio-musika erreskaterako)

2. agerraldia

(Zizaretxoak berriro ere lehengo pertsonaia bilakatzen dira eta Irisek, presaturik, taldea antolatzen du)

Iris:

-Bizkor, mutilak, Lila aurkitu behar dugu, gela guztietan begiratuko dugu: zu, Azkarratxin, hortik joan, zu, Koplas, etorri nirekin, kontuz ibili!

(Banandu egiten dira eta Azkarratxinek Kondearekin egiten du topo).

Azkarratxin:

-Aizu, doilor halakoa, egon geldi! Non da Lila? Esadazu edo nire ezpataren sorbatza probatuko duzu!

Kondea:

-Ezta pentsatu ere, atera ezpata, traidore hori...

(Borrokan hasten dira eta une batez eszenatik ateratzen dira)

(Koplas eta Iris agertzen dira ate guztietan joka, Lilaren bila)

Iris:

-Lila, hemen al zaude? Lila, Lila, non zaude?

Koplas:

-Hemen ez da ezer entzuten...

Iris:

-Proba dezagun hor, Lila...!

(Atearen bestaldean Lilaren ahotsa entzuten da)

Lila:

-Iris, hemen nago, lagundu...

Iris:

-Bizkor, Koplas, zure indarra behar dut, bota ezazu atea...

Koplas:

-Botako dut atea, aterako da andrea.

(Koplasek abiada hartu eta atea apurtzen du. Barrura erortzen da eta Lila gelatik ateratzen da. Neska biek elkar besarkatzen dute. Biolin musika)

(Musika apaldu eta Off-eko ahotsa)

(Eta horrela, Kimera doktoreari esker, gure lagunek ihes egitea lortu zuten eta Lila askatu zuten Printzearekin ezkon ez zedin.)

(Printzea sartzen da, atzean Kondea duela)

Printzea:

-Konde jauna! Konde jauna! Badut beste printzesa bat aurkitzeko konponbidea, Kimera doktoreak pilula hauek eman dizkit, bat zuretzat eta beste bat niretzat, jaten baditugu eder-ederak izango gara eta inork ezingo digu ezetz esan (Ikusleei begira, pilulak hartzen dituzte). On egin!!! Glup! Glup! Glup!!!

Kurrin, kurrin!!! (Zerri bilakatuta ateratzen dira eszenatik)

(Azkarratxin eta Koplas sartzen dira, barrezka)

Azkarratxin:

-Hara, Koplas, hau bai abentura! Zer deritzozu oporrak hartzeari?

Koplas:

-Bai, bai, oporrak, luzeak eta gotorrak...

(Iris eta Lila sartzen dira, jai musika)

Lila eta Iris:

-Ondo da... Azkenik libre eta elkarrekin, Iris!! Ondo!!! Pa, pa, eta berriro pa!!!

(Kanta bat abesten dutela esaten diete agur neska-mutikoei)

AZKENIK

galderak 1

Txotxongiloak ikusi edo irakurri eta gero galdera hauei erantzuna eman:

1.- Zu printzea izango bazina, norekin ezkonduko zinateke?

Ni printzea

2.- Zer egingo zenuke kondearekin?


Nik

3.- Joango zinateke Irisen bila bahitzeko?

Ni

4.- Lila izango bazina, zer egingo zenuke: lehenbailehen Irisen bila joan ala zure erreinuan geratu?

Ni



jarduera 2

BA AL DUZU HISTORIAREN BERRI?

Emakume eta gizon hauek oso garrantzitsuak eta ezagunak izan dira historian zehar. Beheko laukian agertzen diren datuak (data, nazionalitatea eta lanbidea) nahasita daude. Internet-en edo liburutegiko entziklopedietan begiratuta, ipini ondorengo orrialdeetako argazkien ondoan, pertsonaia bakoitzari dagozkion benetako datuak.

Pertsona hauen guztien artean halako lokarri bat dago, zein ote?

IZENA	DATA	HERRIA	ARLOA
SAFO	1452 -1519	Mazedonia	Enperadorea
ALEXANDRO HANDIA	1921-1995	Mexiko	Olerkaria eta santua
LEONARDO DA VINCI	630-560 A.C.	Grezia	Zientzialaria (Grabitate legea)
MICHELANGELO BUONARROTI	1475-1564	Amerikako Estatu Batuak	Olerkaria
SOR JUANA INÉS DE LA CRUZ	356-323 A.C.	Italia	Margolari, eskultore, arkitektoa...
PATRICIA HIGHSMITH	1925-1985	Alemania	Aktorea
MARLENE DIETRICH	1643-1727	Amerikako Estatu Batuak	Aktorea
ISAAC NEWTON	1901-1992	Amerikako Estatu Batuak	Idazlea
ISADORA DUNCAN	1651-1695	Italia	Dantzaria
ROK HUDSON	1878-1927	Erresuma Batua	Arkitekto, ingeniari, margolari,...

Sor Juana Inés de la Cruz

Handwritten notes area for Sor Juana Inés de la Cruz, featuring a vertical spiral binding on the left and ten horizontal lines for writing.



Leonardo Da Vinci

Handwritten notes area for Leonardo Da Vinci, featuring a vertical spiral binding on the left and ten horizontal lines for writing.



Isadora Duncan

Lined writing area for Isadora Duncan with a spiral binding on the left side.



Miguel Angel

Lined writing area for Miguel Angel with a spiral binding on the left side.



Alexandro Handia

Lined writing area for notes about Alexander the Great, featuring a spiral binding on the left side.



Marlene Dietrich

Lined writing area for notes about Marlene Dietrich, featuring a spiral binding on the left side.



Rock Hudson



A set of ten horizontal writing lines for notes, located to the left of the Rock Hudson portrait. The lines are contained within a rectangular box with a decorative scalloped edge on the left side.

Olerkaria Safo



A set of ten horizontal writing lines for notes, located to the left of the Sappho mosaic. The lines are contained within a rectangular box with a decorative scalloped edge on the left side.

Patricia Highsmith


Lined writing area for Patricia Highsmith with a decorative scalloped left edge.



Isaac Newton

Lined writing area for Isaac Newton with a decorative scalloped left edge.





jarduera 3

BERDINAK GARA ETA ESKUBIDE BERBERAK DITUGU: gay eta lesbianen lege-egoera Europan

3.1.- EZAGUT DEZAGUN EUROPAKO MAPA

Europako zenbait herritan gay eta lesbianak ezkondu ahal dira. Honako hauetan: HOLANDA, BELGIKA eta ESPAINIA.

Aurkitu itzazu mapan atlas baten laguntzarekin eta margotu berdez.

Beste herri batzuetan “izatezko bikoteak” egin ditzakete. Horrek esan nahi du osatzen dituzten bikoteak gizarteak ezagutzen eta onartzen dituela, baina ez zaie ezkontzeko eskubidea aitortzen. Beraz, bikote horiek ez dituzte heterosexualen bikoteek dituzten eskubide berberak. Honako hauek dira herriak: LUXEMBURGO, DANIMARKA, SUECIA, NORVEGIA, ALEMANIA, FINLANDIA, ERRESUMA BATUA, PORTUGAL eta FRANTZIA.

Aurkitu itzazu mapan atlas baten laguntzarekin eta margotu urdinez

Europako herri bakar batean ere ez dago legerik sexu bereko pertsonen arteko harremanen kontra doanik, baina herri batzuetan oso baztertuta daude. Are gehiago: herri batzuetan kartzelara eraman ditzakete. Honako hauek dira herriak: ERRUSIA, BULGARIA eta ERRUMANIA.


Aurkitu itzazu mapan atlas baten laguntzarekin eta margotu gorriz.

ZEIN DIRA HERRI HORIETAKO HIRIBURUAK? MAPAN AURKITU, letra xehez idatzi eta azpimarratu.

Hauxe da homosexualitateak eta lesbianismoak Europan 2005ean bizi zuen lege-egoera. Egoera hori etengabe aldatzen ari da. Beraz, litekeena da gerora herri batzuetan izatezko bikoteei eta ezkontzeari buruzko legeak onartu izana. Bildu informazioa eta eguneratu mapa; horra proposatzen dizuegun ariketa.

Horretarako, bilatu Internet-en, edozein bilatzaile erabiliz, “Europako homosexualitatearen lege-egoera”.

EUROPAKO MAPA



3.2.- GAI HORREN INGURUKO ZENBAIT BERRI

Azken urteotan egunkarietan ikusi ahal izan ditugu hemen dituzun moduko albisteak. Arretaz irakurri eta galderei erantzun. Gero, gaia aztertu zure ikaskideekin.

1 ALBISTEA

- Zein jarrera dute argazkian agertzen diren pertsonak? Zergatik?
- Nor agertzen dira argazkian?
- Zein eraikinetan daude? Zergatik? Inoiz ikusi al duzu telebistan?

2
berria
2005eko azpilaren 22a

Harian

LEGE PROIEKTUA. PPK eta CiUko diputatu batzuek kontra bozkatu bazuten ere, homosexualen arteko ezkontzak baimentzeko lege proiektua onartu da.

Ezkontza homosexualari bidea ireki dio Espainiako Kongresuak

Aldeko 183 botorekin Kode Zibila aldatzea onartu zuten atzo Madrilén, eta orain Senatuak berretsi beharko du

UNAI ZUBELDIA - DONOSTIA

183 boto alde, 136 aurka eta 6 abstentzio. Emaizta horrekin onartu zuten atzo Madrilén, Diputatuen Kongresuan, bikote homosexualen ezkontzeko baimena ematen dien eta Espainiako Kode Zibila aldatuko duen lege proposamenaren diktamena. Ondo bidean, abuztu edo irailetik aurrera bikote homosexualak ezkontzeko aukera izango dute. Ondo bidean, atzo Madrilén onartu zuten lege proposamena, oraindik, Senatuak berretsi beharko duelako, eta ondoren, berriaz ere, Diputatuen Kongresuan onartu beharko delako.

«Ezkontzak betebeharrak eta ondorio berberak izango dituzten ezkontzaren sexu desberdinekoak izan edo ez». Hori da orain arteko Kode Zibileko 44. artikuluari gehituko zaion esaldia. Horrez gain, 16. artikuluan ere izango dira aldatzeko: *senar* edo *emazteren* tokian *ezkontzide* jarriko dute, eta *aita* edo *amaren* tokian *guraso* hitzak hartuko du. Kode Zibilari aldatzea garrantzitsuak egin dizkiote, eta gay eta lesbianen taldeen ustez, «egun historikoa» izan zen atzokoa.

Gehitu Euskal Herriko gay eta lesbianen elkarteak atzo jakinarazi zenez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bikoteen %7-15 dira homosexualak, eta bikote homosexual horietatik %40 inguruk dituzte haurrak. Gehienak aurretik izandako harreman heterosexualetan izandako haurrak dira, eta kopuru txikiagoan ema-



GAY ETA LESBIANEN kolektiboetako ordezkariak txaloka hartu zuten bozketaren emaitza. SERGIO BARRONECHEA/ETX

ABUZTUA-IRAILA

Ondo bidean, bikote homosexualak abuztu edo irailetik aurrera ezkontzeko aukera izango dute

ADOPZIOA

Behin legea onartuta, bikote homosexualak haurrak adoptatzeko eskubide osoa izango dute

rrak adoptatzeko eskubide osoa izango dute.

Eliza, erabakiaren kontra

Berehala iritsi ziren atzo aldeko eta kontrako iritzirik. Gay eta lesbianen kolektiboak pozik, zorrazten; Eliza, haserre. Espainiako Konferentzia Episkopalka eman zuen kontrako iritzirik gordinena. «Erabakia erabat okerra da, guztiengatik kaltegarria». Pertsonak izaki, homosexualak herritar orok dituzten eskubideak dituztela onartu arren, Konferentzia Episkopalka ez die ezkontzeko aukerarik ematen. «Sexu bereko bi pertsonen ez daukate inongo eskubiderik ezkontzeko. Aitarien eta amaren figurak beharrezkoak dira».

kumezkoek adoptatutakoak eta intseminazio bidez izandakoak.

EAJko diputatu guztiak lege proposamenaren alde

Bozketan ez zen zalantzarik izan: 183 diputaturen aldeko botorekin baiezkoa ateratu zen. Aurretik, ordea, bazen dudaren bat edo beste EAJ eta CiUrekin. PPK esana zuen lege proposamenaren aurka bozkatzeko zuela —Celia Villalobos Osasun ministro ohiak bikote homosexualen arteko ezkontzen alde bozkatu zuen—, baina CiUk eta EAJk euren diputatuak eman zieten erabakitzeko eskubidea. Azkenean, CiUko diputatu batzuek ezezko bozkatu bazuten ere, EAJko guztiak baiezko boza eman zuten.

PPK eta CiUk ezezkoaren argibideak eman zituzten. «Homosexualen arteko ezkontzak tradiziozko ezkontzatik aparte egin beharrezkoak dira».

183 bai, 136 ez eta 6 zuri. Emaiztak jakinaraztearekin batera txalo zaparrada entzun zen Diputatuen Kongresuan. Gay eta lesbianen kolektiboko ordezkariak ziren, bozketara gonbidatu gisa joandakoak. Lege proposamenak bide luzea du oraindik, Senatu, berriaz ere, Kongresu,

eta Buletin Ofiziala. Gay eta lesbianen kolektiboek ustez, abuztu amaieran edo irailean izango da sexu bereko bikoteen arteko lehen ezkontzak ikusteko aukera. Funsean, legea onartzen deanean, bikote homosexualen heterosexualek eskubide eta betebeharrak izango dituzte: hiriritasuna, herentziak, gaixotasunak eragindako lanuzteak, pentsioak edo adopzioak, kasu.

Adopzioa. Orain arte izateko bikote homosexualak haurrak adoptatu ahal izateko bikotekideetako batek adoptatu behar izaten zituen. Behin legea onartuta, bikote homosexualak haur-

2 ALBISTEA

- Zein da albistearen gaia?
- Bilatu hiztegian “homofobo” hitza. Bilatu, orobat, “lesbofobia” hitza.
- Albistean, martxa edo manifestaldi bat aipatzen da. Zein manifestaldiz ari da?
- Zer ospatzen da urtero ekainaren 28an?
- Zer eskatzen dute argazkian dauden pertsonak?

berria asteartea, 2004ko ekainaren 29a 13

EUSKAL HERRIA © Gay eta lesbianen nazioarteko eguna

Homofobiaren aurka ausardia eskatu dute gay eta lesbianek


Gay eta lesbianek jaia eta aldarrikapenak uztartu zituzten atzo Hego Euskal Herriko hiriburu eta manifestazioetan

Donostiako manifestazioko ehunka parte-hartzaileak geratu egin ziren Artzai Onaren katedralaren parean. «Hemen gaude, ez gara ezkutatzeko!», oihukatu zuten bertan.



HOMOFOBIAREN KONTRAKO mezuak zabaldu zituzten atzoko mobilizazioetan. Argazkian, Iruñea. (MARTINDEJALA/ARGAZKI PRESS)

Milaka lagun bildu ziren atzo Hego Euskal Herriko hiriburu eta festa giroan gay eta lesbianen eskubideak aldarrikatzeko eta beren kontrako erasoak salatzen. Guztietan salatu zuten PP, UPN eta Elizaren jarrera.



actividad 4

NOLAKOAK DIRA GURE FAMILIAK?

4.1.- EGIN DEZAGUN GRAFIKO BAT

24 ikasle dituen gela batean, honako emaitza hauek lortu dira:

- $1/2$, bere aita, ama eta neba-arrebekin bizi da.
- $1/4$, bere aita eta amarekin bizi da.
- $1/12$, bere ama eta neba-arrebekin bizi da..
- $1/12$, bere amarekin bizi da.
- $1/24$, bi amarekin bizi da.
- $1/24$, bi aitarekin bizi da.

Zenbat ikasle daude egoera bakoitzean?

EGIN BARRA GRAFIKO bat, lortutako emaitzak islatzeko.

A large, empty rectangular box with a thin black border, intended for students to draw a bar chart based on the data provided in the list above.

4.2.- ARGAZKIEKIN LAN EGINEZ

Argazkietan, sexu bereko bikoteak ikus ditzakezu, beren seme-alabekin.
Zer iradokitzen dizute argazki horiek? Ipini argazki bakoitzari oin bat eta kontatu zure gelakideei



.....
oina
.....



.....
oina
.....